



**Arkeologoak
Koskobilora bueltatu
aurretik mustu dute
herritik hara joateko
ibilbidea** / 12-13

**Uharte Arakilgo Udala
Auzasoroburu dermioa
lehengoratzeko lehen
pausoak ematen hasi
da** / 11

**Roberto Martil
Osasuna Magna
Xotako bigarren
entrenatzailea
izanen da** / 16

**Graciela Prado
etxarriarra Pole
Sport-eko Mundu
txapelketarako
prestatzen ari da** / 18

**Sakanako
Mankomunitateko
Euskara zerbitzuak
literatur sariak
banatu ditu** / 21

**'Ombuaren itzala'
grabatzen hasi dira
Patxi Bisquert eta
Joseba Salegi
zinemagileak** / 23



Sasoiko

Horrela iritsi da bere 50. urteurrenera Lakuntza Kalor Group / 2-4

Alfredo Alvaro Igoa LAKUNTZA

Mende erdia bete du Lacunza Kalor Groupek eta 50. urteurrenerako *Gure etxean, gure familian, gure historian... betidanik gurekin* leloa aukeratu du. Behar bezala ospatzeko ekitaldia antolatu zuen larunbatean. Lakuntzako lantegiko ateak zabaldu zituen langileen senide eta langile ohiek ekoizpen prozesua nola egiten den bertatik bertara ikus zezaten. Jose Julian Garziandia Pellejero aitortu zuen "egun berezia" zela Lacunzaren dako.

Gaur egun zer ekoizten duzue?

Hasi ginenean sukaldeak egiten genituen bakarrik. Ondoren, aspaldi, estufa eta tximiniak batzuk egiten hasi ginen. Gaur egun hiru produktuak ditugu: sukaldeak, estufak eta tximiniak. Gero eta estufa gehiago ekoizten ari gara. Tximinien ekoizpena ere igotzen da eta sukaldeetan mantentzen ari da.

Ongi pentsatutako produktuak.

Hasieratik, estrategia hausnarketarekin enpresaren norabidea zehazten dugu. Hiru urtero-edo halako estrategia hausnarketa egiten dugu. Duela 12 urte, gutxi gorabehera, ere egin genuen. Momentu hartan pellet estufen boomaren garaia zen. Egurra erabiltzen zuten tximiniak egiten zituzten Europako enpresa guztiak hasi ziren pellet estufak egiten. Italia iparraldera joan nintzen. Han pellet estufak fabrikatzeko osagai guztiak ekoizten dituzte hamar edo hamabi enpresek. Nahi duzun estufa mota egiteko beharrezkoak diren pieza guztiak saltzen dizkizute. Ikusi genuen pellet estufa edozeinek egin zezakeen gauza erraza zela. Zuk ez duzu praktikoki teknologia ekarpenik egin behar. Beraiek esaten dizkizuten osagaiak erosi eta muntatzea da. Estrategia hausnarketa egitean pentsatu genuen hobe zela pelletaren munduan ez sartzea. Aldi berean, pentsatu genuen Europan egurra erabiltzen duten estufa egile onenak izatea.

Hori gauzatzeko, zer egin zenuten?



Jose Julian Garziandia Pellejero, Lacunza Kalor Groupeko zuzendaria.

"Urtero ari gara inbertsioak egiten, produktu berriak sortzeko"

JOSE JULIAN GARZIANDIA PELLEJERO LACUNZA KALOR GROUPEKO ZUZENDARIA 50 urteren ondoren, munduan milioi erdi etxe haien aparailuekin berotzen dira. Baina ez dute horretan gelditu nahi. Enpresaren egoeraz eta produktuez aritu da Garziandia

Katalogo eder bat egin genuen. Estufak non saldu behar genituen ere zehaztu beharra zegoen. Zeren orduan ekoizpenaren %80a Espainian saltzen genuen, gainontzekoa esportatu. Italia, Frantzia eta Portugal begiz jo genituen, produktu asko saltzen delako eta ondoan daudelako. Hurrengo helburua mundu guztian saltzera pasatzea zen.

Pentsatu eta egin?

Diseinu berria, ederra eta teknologia asko zuten produktu batzuk ekoizten hasi ginen. Guretatik, batez ere, gauzarik garrantzitsuenak zen Europako eta munduko araudi zorrotzenak betetzea; araudi onetan oinarritutako produktuak egitea. Hori guztian ingurumenean, kutsaduran eta abarretan pentsatuz. Lehendabiziko urteak oso gogorrak izan ziren. Gure produktuak Espainiako ekoizleenak baino garestiagoak ziren eta Espainian ez ziguten erosten. Europan ez zuten erosten produktu "espainiarra" zelako. Frantzia eta Italia hemenean baino askoz tximiniak kultura handiagoa dute eta jatorriaren aurreiritziagatik ez zuten erosten. Urte gogorrek pasa arren, gure bideak hura izan behar zuela pentsatu genuen. Politika horrekin segitu genuen. Urteak pasa dira eta bi gauza ikusgarri pasa zaizkigu.

Zer?

Konpetentziak esaten duenez, Espainian Lacunzak du produktu onena. Espainian, sektore honetan, lehen baino askoz ere kultura gehiago dago orain. Jendea produktu eta marka onak opatzen ari da, eta Espainian askoz ere gehiago saltzen hasi gara. Eta Europan, pitteka-pitteka, gure produktuak probatzen hasi ziren eta ikusi dute produktu oso ona daukagula, araudi guztiak betetzen dituela. Europan oso-oso ongi saltzen hasi gara, kalitate eta prezio erlazioa oso ona dugulako. Sektore honetan, munduan, ospe ona lortu dugu. Momentu honetan leku askotan saltzen ari gara: Uruguay, Hego Afrika, Israel, Libano, Australia, Zelanda Berria, Europa guztian...



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Orain Suedia, Norvegia eta Finlandian saltzeko akordio oso ona egin dugu. 35 herrialdeetan baino gehiagotan saltzen dugu produktua. Ekoizpenaren %60 esportatzen dugu. Azken urteetan asko ari gara handitzen. Momentu honetan lan asko dugu.

Aztatu zenuten!

Bai. Egia da ere azken urteetan hiru gauza oso garrantzitsu pasa zaizkigula. Alde batetik, gauzak ongi egin ditugu. Bestetik, pandemia. Jendea etxean gelditu zen, dirua gastatu gabe. Gainera, etxea hobetu nahi zuten. Bada, Europa guztian askoz ere gehiago saldu dugu. Azkenik, energia krisia. Horrekin oso garbi ikusi da pelleta egiteko energia asko gastatu behar dela: zuhaitzak moztu, zerrautsa egin, prentsatu...

Ondorioz, energiagatik pelletaren prezioak asko igo dira. Bitartean egurraren prezioa igo bada ere, oso gutxi igo da. Ikusi da egurra pelleta baino askoz merkeagoa den energia bat dela. Pelleta asko jaitsi da eta egurra erabiltzen duten produktuen salmenta asko igo da.

Inbertsioa eskatzen du horrek guztiak?

Urtero ari gara inbertsioak egiten, produktu berriak ateratzeko. Ekoizten ditugun produktu berriak oso onak dira, bai diseinu aldetik, bai araudia betetzen dutelako.

Ikerketa eta garapena funtsezkoak, ezta?

Jakina. Gaur egun 2022-2025 urteetarako sei milioi euroko in-

"EUROPAN EGURRA ERABILTZEN DUTEN ESTUFA EGILE ONENAK IZATEA PENTSATU GENUEN"

"2022-2025 ALDIRAKO SEI MILIOI EUROKO INBERTSIO PLANA DAUKAGU MAHAI GAINEAN"

"PRODUKTUETAN INBERTITZEKO IKERKETA ETA GARAPENEAN DENA EMANEN DUGU"



Lacunza Kalor Group 50. urteurren ekitaldiko talde argazkia.

bertsio plana daukagu mahai gainean. Makineriara, instalazioetara eta Ikerketa eta Garapenera bideratuko dugu diru hori. Laborategirako analizatzailer bat (90.000 euro) eskatu genuen joan zen astean, horrela laborategia erabat osatuta izanen dugu. Harekin egiten diren proben bidez kalera botatzen diren partikulak (CO₂, CO eta beste) neurtuko ditugu. Tolesteko bi makina gehiago eta txapa laser bidezko makina erosi behar ditugu. Inbertsio oso inportanteak dira. Produktuetan inbertitzeko Ikerketa eta Garapenean dena emateko asmoa dugu.

Zer alde dago etxe batean betidanik dagoen tximinia baten eta zuen azken modeloaren artean?

Esaten dutenez, irekiak diren hiru milioi tximinia daude Espainian, gaur egun araudia betetzen ez dutenak. Espainian azken urteetan edozein gauza saldu da eta, horregatik, hiru milioi. Aterik ez duten tximinia irekien errendimendua, gutxi gorabehera, %20koa da. Guk egiten ditugun errendimendua %80tik gorakoa da. Duela bost edo hamar urte ezinezkoa zen halako datuak zituzten produktua lortzea. Gaur egun datu horiek hobetzeko probak egiten ari gara. Ezagutzen ez diren teknologia berri batzuk aplikatzen ari gara, eta datu politikak ateratzen ari gara. Errendimendua aldetik hori. Bestetik, kutsaduraren gaia dago. Irekiak diren tximinien kutsadura proportzioa oso handia da. Kutsadura maila

altuena eta txikiena zehazten duen araudia dago. Gaur egun guk araudiak exijitzen dituztenak baino datu hobek dituzten produktuak egiten ari gara. Gainera, ekoizten ditugun produktu gehienek aginte bakarra dute. Beraz, aginte bakarrarekin tximiniaren tiro nagusia, bigarren mailako tiroa eta errekontza prozesua kontrolatzen da. Espainian ez du inork gehiagok hori egiten.

Beste abantailaren bat?

Momentu honetan egiten ari garen produktu gehienak estankokoak dira. Passive house moduko etxeetan jartzeko moduko produktuak ditugu. Gainera, haizea kanpotik hartzen duten produktu asko ditugu. Irekitako tximiniak sua egiteko beharrezko oxigenoa gelatik bertatik hartzen dute. Bero dagoen airea tximiniara sartzen ari gara kanpora botatzeko. Kanpotik haizea hotza hartzea hobe da. Sistema horrekin kaleko haize hotza su ondora eramaten duzu, oxigeno hori erretzen duzu eta kalera botatzen duzu. Beraz, teknologia hori guztia duen tximinia batek ez du zerikusirik beste edozeinek. Erreketa sistema horrekin kristalak askoz ere gutxiago zikintzen dira, edo batez ere. Sua oso polita ikusten da, erreketak suabea da. Askoz egur gutxiago gastatzen da. Gauza asko dira, eta gure produktuak momentu honetan puntako teknologia du. **Tximiniak berogailu sarera lotzeko eta etxea berotzeko aukera ere izanen da, ezta?**

Bai sukaldeekin bai tximiniekin.

Bitrozeramika duten sukaldeak ere badaude katalogoan.

Bai, aspaldi. Egurrarekin berotzen duten sukalde normalek leundutako burnizko gaina dute, arandelekin. Horrela edo bitrozeramikarekin ere egiten ditugu. Azken horren abantaila da trapu batekin oso erraz garbitzen dela. Fundizioko gaina dutenak, berriz, asko zikintzen dira, udan ez erabiltzean herdoildu egiten dira. Aspaldi bitrozeramikarekin probatu genuen. Burnizko gainaren gainean bitrozeramika dago, baina egurrarekin berotzen duzu.

Inflazioak eta gerra testuinguruak nola eragin dizue?

Ziurgabetasun handia dugu momentu honetan. Inflazioa gora doa. Soldadak ez dira prezioak bezala igo. Hori ez da ona. Langileek dirua jasotzen ez badute enpresarendako eta denondako txarra da. Garbi dago. Ez dakigu zer pasako den hurrengo urtean. Bestetik, pentsatzen dugu egurra erabiltzen duen estufa eta tximinien gure sektoreak hobe pasako dugula etorri daitekeen krisia. Gerrarekin eta energia krisiarekin jendeak bildur handia du. Pentsatzen dugu mundu guztiak, badaezpada zerbait etortzen den, etxean egurrezko aparailuren bat jarriko duela. Bestetik, mundu guztian saltzen ari garenez, European beste eremuetan baino gehiago jaisten bada, pentsatzen dugu Australian, Hego Afrikan edo beste lekuren batean salduko dugula. Egoerak beste buelta bat ematen badu lehen baino

lehen ateratzeko abiapuntu ona dugula pentsatzen dugu.


Aurtengo zer aurreikuspen dituzue?

40.193 aparailu ekoizti nahi ditugu, 19.358 Altsasuko lantegian eta 20.835 Lakuntzakoan. Hau da, 182 aparailu egunean. Duela zazpi edo zortzi urte 10.000 ekoizten genituen. Erronka zaila da, asko hazten ari gara. Dugun lantaldeari esker ongi egiten ari gara. Sukaldeak, estufak eta tximiniak egiteko 3.000 tona altzairu txapa erabiliko ditugu. Helburuak lortzeko eragotzi diezagukeen gauza bakarra da lehen-gaien hornidurak kale egitea. Gu eta mundu guztia arazoak izaten ari gara. Hornidurak kale egiten ez badu, erronka lortzeko beharrezko giza, teknika eta ekoizpen baliabideak ditugu. Hazten eta eskualdean enplegua eta aberastasuna sortzen segitzea da gure helburua.


Lan Sozietate Anonimoa izateak zer eman dizue?

Lacunza 124 langile gaude lan egiten. Baina pixka bat berezia da Lan Sozietate Anonimoa, gure familiak proportzio handi bat duelako eta gainontzekoa bazkide diren enpresako 52 edo 53 langilerena da. Niretako Lan Sozietate Anonimoarena oso planteamendu ona da. Alde batetik, jendea inplikatuago dago; bazkideak direnez, beste pentsamolde bat dute. Denak ez dira bazkideak, baina besteengandik pixka bat "kutsatzen" dira. Lacunzarendako oso ona izan dela pentsatzen dut. Enpresak aurrera hobe ateratzeko formula berezia da. 1997tik gara eta esperientzia oso ona izan da.

Nola egiten da tximinia bat?



2. Txapa laserrarekin moztu



1. Laborategia



3. Txapa tolestu



4. Piezak soldatu



5. Piezak margotu



6. Muntaketa egin



7. Biltegia



BUKATUTAKO PRODUKTUA

Historia, labur

1930

Aretxabaletako Cerrajera San Antonio Lakuntzan ezarri zen. Besteak beste Sacsá markako sukaldeak egiten zituen, egurrarekin berotzen zirenak. 200 langile izatera iritsi zen, haietako asko emakumezkoak.

1964-06-24

Tot Garais enpresa sortu zuten Julian Ganboak, Jose Bigasek eta Francisco, Felix, Mariano, Segundo eta Jose Mari Garziandiak.

1967

Cerrajera San Antonio itxi zen.

1971-11-10

Kontratu pribatua sinatu zuten. Tot Garaisek fundizioa zuen eta erabaki zuen egurra erabiltzen zuten sukaldeak egiten jarraitzea.

1973-06-26

Cocinas Lacunza enpresa sortzeko agiria sinatu zuten. Benigno Andueza, Jose Burillo, Julian Ganboa, Jesus Ronzon eta Francisco, Felix, Mariano, Segundo eta Jose Mari Garziandia ziren sustatzaileak. Txurikoren bajearen sukalde txuriak egiten hasi ziren. Han lan egiten zuten Patxi Garziandiak, Andres Garziandiak eta Isidro eta Miguel Angel Asurabarrenak. Eta Benigno Anduezaren bajearen sukalde beltzak egiten zituzten Juanito Arregik, Julian Arregik, Miguel Asurabarrenak, Miguel Lacunzak, Alejandro Razkinek eta Santiago Arregik.

1989

Lakuntzan industriarako zorurik ez zegoenez, eta, besteak beste, hazi nahi zuten, Altsasuko lantegia zabaldu zuten, 6.000 m² inguruko azalera du.

1997

Enpresa Lan Sozietate Anonimo bilakatu zen.

2011

3,5 milioi euroko inbertsioa eginda, Lakuntzan lantegia, bulegoak eta kanpa egin zituen 5.800 m²-an. Biomazako bi galdarek elikatzen duten zoru bero-emaile bidezko berokuntza sistema du. Izena ere aldatu zuen: Lacunza, Calor de Vidatik Lacunza Kalor Groupera pasa ziren.

2011

Garai hartan egindako estrategia hausnarketan egurrezko aparailuen sektorean aritzea erabaki zuten.



ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN LOPEZ DE GOIKOETXEA

Marsha erlea

Datozen egunetan hainbat ekitaldi egingo dira ekainaren 28ko harrotasunaren eguna ospatzeko. Stonewalleko matxinada gogoratzen da egun horretan. 1969ko ekainaren 28ko goizaldean, Stonewall izeneko pub batean, polizia egindako sarekada baten aurkako protestak izan ziren. New Yorkeko Greenwich Village auzoan dagoen pub honetan LGBTQ+ jendea ibiltzen zen. Haien artean, batek oso paper aktiboa jokatu zuen gau hartan, Marsha P. Johnsonek.

1945eko abuztuaren 24an New Jersey jaioa, Marsha P. Johnson emakume transgeneroa, afroamerikarra eta pobrea izan zen. Silvia Rivera adiskidearekin batera, Street Transvestite Action Revolutionaries, STAR (Kaleko Ekintzaile Trabestida Iraultzaileak) erakundea sortu zuen. Baliabiderik gabeko trans emakume askori lagundu zien eta hiriko lege homofobo batzuk aldatzea lortu zuten. Hori dela eta, LGBTQ+ mugimenduaren barruan diskurtso transfobo eta elitista batzuk entzuten direnean, komeni da ez ahaztea Marsha P. Johnson bezalako lehenengo aktibistak.

Bestalde, komeni da ere Estibaliz Urresolaren *20.000 erle espezie inguru* filma ez galtzea. Aitorri buruzko filma da, izen horretan bere burua ezagutzen ez duen eta Lucia izatea gustatuko litzaiokeen zortzi urteko mutikoari

SAKANAN 20.000 PERTSONA INGURU BIZI GARA. ZENBAT ERLE ESPEZIE DAUDE SAKANAN?

buruzkoa. Trans haurtzarora sentiberatasun eta gozotasun handiz tratatzen duen filma, erleen ezta bezala. Sakanan 20.000 pertsona inguru bizi gara. Zenbat erle espezie daude Sakanan? Ez dakit. Baina harro sentituko nintzateke espezie horien artean Marsha erlea, Lucia erlea eta Luka erlea daudela jakinda.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Laguntzen duten zenbakiak

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Gure egunerokotasunean beharrak sortzen zaizkigu, batzuetan egoera larrien aurrean aurkitzen gara eta laguntza beharrean; erabat barneratua dugu istripu, eroriko, sute edo abarren aurrean 112ra deitu behar dugula, adituak diren profesional edo teknikariek behar bezala horiek artatu edota arintzeko.

Badaude ere laguntza ematen duten beste telefono zenbaki batzuk; batzuetan ditugun arazoak ez ditugu inorekin partekatzen, oso ezkutuko egoerak direlako edo ez dugulako inork gure arazoan berri izatea nahi. Berdin gerta daiteke gertuko norbaiten

kasuarekin, arazoren bat duela hauteman, baina ez jakitea nola lagundu, bideratu. Esandakoa, badaude laguntzen duten beste zenbaki batzuk, hona adibideak:

- **024.** Bere buruaz beste egiteko pentsamenduak dituzten pertsonen laguntzeko, baita beraien familiei ere. Doakoa, anonimotasuna bermatua, urte osoan, ordu guztietan erabilgarria dagoena.
- **948 243 040.** Itxaropen telefonoa. Bakarrik sentitu, krisi edo sufrimendu egoera bati aurre egiteko beharra dutenentzat. Doakoa, anonimotasuna bermatua, urte osoan, ordu guztietan erabilgarria.

- **900 018 018,** eskolan jazarpena jasaten dutenentzat, bai familia bai irakaslerentzat. Doakoa, anonimotasuna bermatua, urte osoan, ordu guztietan erabilgarri dagoena.

- **Consumidores Irache,** udaleetxetan txanda hartu dezakegu. Kontsumo eskubideekin lotutako arazo guztietan aholkatu eta laguntza jasotzeko: etxebizitza, alokairuak, auzo komunitatea, aseguruak, ibilgailuak, administrazioa,...

- **112.** Beste edozein egoeratan, beldurra dugulako, tratatu txarreatatik, edozein eraso jaso edo ikusi dugulako ere dei daiteke bertara.

GUTUNA

Autobus zerbitzu berria, gehiago eta hobeto?

EGOITZ ALBARRACIN ALBIZTUR ALTSASU

Ekainaren 9ko GUAIXE aldizkari honetan Iruñea-Sakana-Gasteiz autobus zerbitzu berriari buruzko erreportaje zabala argitaratu zen eta bertan zerbitzu honen hainbat gabezia edo "aje" azaleratzen ziren. Nik beste batzuk gehituko nizkioke. Altsasutik Iruñera iristeko bidaia denborak, esaterako, asko luzatu dira. Adibide bakarra jarriko dut: aurreko zerbitzuarekin, Altsasutik 6:40etan ateratzen zen autobus zuzena zegoen, 45 minutu ingurutan Iruñeko erdigunean

uzten zintuena. Ikasturtean zehar autobus hori ia beteta joaten zen egunero. Orain, bidaia horrek ordu bat eta 20 minutuko iraupena du, herriz-herriz gelditzen. Zerbitzu berriarekin, Iruñera goizeko 8ak baino lehen iristeko, 6.10etan hartu behar da autobusa. Hau al da zerbitzua hobetzea?

Garraio publikoaren erabilpena sustatu nahi bada, zerbitzu erakargarria eta eraginkorra eman behar zaie herritarrei, auto pribatua etxean utzi eta autobusa edo trena erabiltzera eramango duena. NBUS zerbitzu honekin egin dituzten aldaketekin, kontrako bidea hartu da, nire ustez, zerbitzu okerragoa eta geldoagoa eskainiz, herritarren benetako

mugikortasun beharrak kontuan hartu gabe. Agintariek zerbitzua birpentsatzeko aukera dute, erabiltzaileen iritzia eta beharrak kontuan hartuz. Ea hala egiten duten.

ZUZENKETA

Joan den asteko zenbakian Sakanako autobus zerbitzu berriari buruzko erreportajea argitaratu genuen. 13. orrian azaldu zen Europako Bertan proiektuaren bidez mugikortasun premiei erantzuteko webgunea eta aplikazio librea sortu zirela. Eskaera bidezko garraioa kudeatzeko aplikazio libre hori Nafarroako Gobernuaren esku utzi zuten. Beraz, ez da KudeaGO, hori enpresa batek bulkatu eta kudeatzen duen aplikazioa baita.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maidier Gabirondo Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
Iñaki Rubio Mendoza
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



Domingo Bados eskolako 6. mailako ikasleak Siriako errefuxiatu familiako kideekin. UTZITAKOIA

Errefuxiatuen Egunean, klasetik kalera

Eskolako 6. mailako ikasleek iheslarien inguruko proiektua bukatzeko elkartasun azoka antolatu dute garagarriaren 20rako, asteartea, 11:00etatik aurrera. Saldutakoarekin lortutako dirua Help NARI emanen diote

OLATZAGUTIA

Nazio Batuen Erakundeak Errefuxiatuen Munduko Eguna izendatua du garagartzaroaren 20a. Haren bidez, "mundu osoko errefuxiatuak eta desplazatuak ohoratu" nahi ditu. "Gatazketatik edo jazarpenetatik ihes egiteko beren etxea utzi behar izan duten pertsonen indarra eta kemena goratzeko" eguna izan nahi du. Nazio Batuen Erakundeak Errefuxiatuen Munduko Egunaren bidez "haien egoera zaila kontuan hartuta, errefuxiatuekiko eta desplazatuekiko ulermena eta enpatia sustatu" nahi ditu nazioarteko erakundeak, baita "iheslariak haien bizitzak berreskuratzeko erresilientzia gaitasuna" aitortu ere.

Horiek guztiak kontutan hartuta, errefuxiatuak zer diren, haien errealitatea ezagutzeko eta bestelako aspektuak ezagutzeko, Olatzagutiko Domingo Bados eskola publikoko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek *Ongi etorri errefuxiatuak* proiektu

tu egin dute. Duela sei aste ekin zioten proiektuaren lanketari eta, horretan ari zirela, ikasle olaztiarrek jakin zuten Altsasuko Otadiako Kristo Deuna aterpea errefuxiatuendako aterpe bilakatu zela. Hori jakinik, haietakoren bat ezagutzeko aukera baliatu nahi izan zuten. Gonbidapena egin eta, hari erantzunez, Altsasun aterpe hartuta dagoen Siriako familia bat joan zen haien klasera hilaren 8an. Haien bizitakoak kontatu zituzten ikasleei.

Bestalde, errefuxiatuen alde zerbait egin nahi izan dute Domingo Bados eskolako 6. mailako ikasleek. Aurreko urteetatik iheslarien alde lan egiten duen Help NA gobernuz kanpoko era-

IKASLEEK SIRIAKO ERREFUXIATU FAMILIA BATEN BIZIPENAK EZAGUTU DITUZTE

kundea ezagutzen zuten. Erakunde hori larrialdi humanitarioetarako Nafarroako suhiltzaileen taldea da. Gobernu kanpoko erakunde hori laguntzeko zerbait egitea erabaki zuten, horrela, errefuxiatuak laguntzen segitzeko aukera izan zezan. Horregatik, 6. mailako ikasleek eskumuturrekoak, orri markatzaileak, pegatinak eta bestelakoak egiten ari dira. Horiek guztiak Errefuxiatuen Munduko Egunean, asteartean, salgai jarriko dituzte. Olatzagutiko azoka asteartean bertan denez, azokan izanen dira ikasleak beraien salmahaiarekin. Eguraldiak lagunduko ez balu eskolako frontoian jarriko lukete azoka. 11:00etan hasiko dira saltzen. Haien elkartasun azokaren berri emateko ikasleek kartelak jarri dituzte herriko denda eta tabernetan. Ikasleek eta eskolak Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuaren laguntza izan dute.



Patioan jarritako tibetar zubia. Ezkerretara tutua ageri da. UTZITAKOIA

Eskolako patioa osasungarria egiteko, jolas berriak

Jolaserako elementu berriak jartzen hasi dira, ikasleak patioan daudenean jolastuz ariketa egin dezaten

ETXARRI ARANATZ

San Donato eskola publikoko patioan aldaketak izan ziren maiatzean. Ikasleen gozagarri, jolas berriak jarri zituzten: tutu bat, tibetar zubia eta gurpilez egindako zirkuitua. Hiru horiei eskolako patioan jarriko diren beste bost jolas gehituko zaizkie: etxetxoak, harea tokia, oreka enborrak, oreka zintza eta tirolina. Beraz, patioak hainbat jolasez osatutako zirkuitu bat izanen du etorkizunean.

Ikastetxe publikotik adierazi dutenez, jolas horiek jarri "patioa osasungarriagoa lortu nahi dugu. Hau da, ikasleak patioan daudenean hainbat ariketa fisiko egitea bulkatu nahi dugu. Gorputza mugitzea eragiten duten ariketak osasunarendako onak direlako, eta, gainera, ikasleek ongi pasatzeko jolas ezberdinak izango dituztelako".

Egitasmoa joan zen urteko maiatzean abiatu zuten. Eskolako kideek proiektua egin eta Hezkuntza Departamentuan aurkeztu zuten. Haren oniritzia eta dirulaguntza jaso ondoren, San Donato ikastetxe eskola komunitatea proiektua gauzatzeko lanean hasi zen. Finantza-zioa guztiz lotzeko Guraso Elkarteak eta Etxarri Aranazko Udalak ekarpenak egin dituzte.

Lotu beharrekoak lotuta, proiektua gauzatzeko garaia iritsi zen. Langintza horretan ere komunitatea partaide izan da. Jolas zirkuituaren diseinuan eskolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek parte hartu

zuten. "Lehenik eta behin ikasleei erakutsi zitzaizkien nolako patioa diseinatu behar zuten, ideia desberdinen irudiak pantailan erakutsi zitzaizkien". Abiapuntu horrekin ikasleek, taldeka, diseinua egin zuten. "Lehenik, paperean eta tabletetan zirriborroak egin zituzten eta ondoren maketa bat sortu zuten hainbat material erabiliz. Talde bakoitzak bere maketa aurkeztu zuten eta aurkezpen guztiak bideo bat osatu zen".

Ikasleek egindako maketak eta bideoak obra batzordeko gurasoei erakutsi zituzten, haiek baitziren pake osasungarriko jolasak aukeratzeko ardura zutenak. "Aukeraketa ez zen batere erraza", azaldu dute eskolatik; "modu orekatuan egiten saiatu ziren proposamen bakoitzetik gutxienez jolas bat hartzeko. Jolas horiek zirkuitu bat diseinatu zuten. Diseinu hau udalari erakutsi zitzaion haien iritzia jasotzeko eta laguntza eskatzeko". Baiezkoarekin egitasmoa gauzatzeko ez zen falta eta hori auzolanean egin zen. Hiru auzolanetan jarri zituzten hiru jolasak. Haietan 30 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten. Lanean segitzen dute, eskolatik gaztigatu dutenez, "helburua baita lanak uda iritsi baino lehen bukatzea". Oharra ere egin dute: "baliteke jolas bat edo beste gehiago jartzea iraillean". Eskolakoak "oso pozik" daude egindako lanarekin eta jasotako laguntzarekin, eta esker ona adierazi diete parte hartzaile guztiei.

KUL TUR

2023

ekainak 24 /
irailak 09

PROGRAMAZIOA



Udako kultur programazioa.
Estilo guztietako musika, dantza,
antzerkia eta askoz gehiago

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



EKAINA

30 Olazti

IRAILA

08 Altsasu



Egindako lanagatik aitortza berriemaileei

Udaleko Gazteria Zerbitzuaren eta Intxostiapunta gazte gunearen jardueren berri eman dute beraien ikastetxeetan. Hori aitortzen duen diploma eta saria jaso dute. Heldu den ikasturtean berriemaile izateko deialdia irailean zabalduko da

ALTSASU

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuko arduradunak ikasturte honetan berriemaile izan diren gazteekin elkartu ziren hilaren zazpian. Zortzi berriemaile izan dira, bina ikastetxeko: Cristina Matias Tapia eta Jonathan Laura Pacifico (Sakana Lanbide Heziketa institutua), June Sanzol Lumberras eta Enaitz Gonzalez Elbusto (Iñigo Aritza ikastola), Kimetz Arregi Martin eta Olaia Ferrero Marin (Altsasu Bigarren Hezkuntzako institutua), eta Anne Fernandez Garcia eta Eneko Horna Okariz (Sagrado Corazon ikastetxea). Kurtsoko azken bilera izan zen eta gazteek ikasturtean zehar egindako lanaren memoria emateko baliatu zuten. Zerbitzuko arduradunek, berriz, bakoitzari zegokion diploma eta dirusaria eman zieten. Hala ere, bi berriemaileen egitekoa oraindik ez da despeditu. Izan ere, Arregi eta Ferrero Palentzian izanen dira hilaren 23tik 25era,



Lau ikastetxeetan berriemaileak izan diren gazteak. UTZITAKOIA

berriemaileen topaketan parte hartzen.

Bosgarren ikasturtea izan da Gazteria Zerbitzuak bere eta Intxostiapunta gazte gunearen berri emateko berriemaileak erabiltzen dituen. Haien egite-

koa da sare sozialen bidez eta ikastetxeetako oholtzen bidez antolatutako jardueren berri ematea. Zerbitzutik jakinarazi denez, irailean 2023-2024 ikasturterako berriemaileak aukeratzeko prozesua abiaraziko du.



Giro ederrean pasa zuten eguna ikasle ohiek. UTZITAKOIA

Institutuko ikasle ohiek urrezko ezteiak ospatu zituzten

Batxilergo ikasketak 1973an bukatu zuten hogeit bat ikasle ohi larunbatean elkartu ziren

ALTSASU

Aralarko San Migel Institutuan duela 50 urte ikasketak despeditu zituzten hogeit bat ikasle, atzera ere, larunbatean elkartu ziren. Washington, Galizia, Gipuzkoa eta Nafarroatik etorritako ikasle ohi gehienak dagoeneko jubilatuta daude. Ikastetxeko 8. promozioakoak ziren, Goi Mailako Batxilergo Teknikoko Industria eta Meatzaritza adarra ikasi zuten azkenak. Ondorengo hezkuntza erreformak 14 urtera arteko Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, hiru ikasturteko Batxilergoa eta ikasturte bakarra irauten zuten

Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea ekarri zituen.

Topaketak hildako ikaskideez eta karismadun irakasleez gogoratzeko balio izan die. Baita ikastetxe izandakoa berriro zapaltzeko ere. 1956an zabalduzako ikastetxe hark Sakanaz kanpoko ikasleak ere hartu zituen eta haiendako egoitza zuen aldamean, egungo aterpea dena. Bi eraikinak bisitatu eta oroitzapenak berriro ondoren, kontu kontari jarraitu zuten mahai baten bueltan, bazkari ederrarekin eta ondorengo hizketaldi are luzeagoekin.



UTZITAKOIA

Klinikak Gasteizen zentroa du

Josefina Arregui Klinikak Arabako geriatriko eta psikogeriatriko lehen Kontsulta Medikoen Zentroa mustu zuen Gasteizen astelehenean. Zentroak hiru zerbitzu eskainiko ditu: geriatriko eta psikogeriatriko kontsulta, neurospilogia kontsulta eta errekupeazio eta mantentze fisikoko eta funtzionaleko zerbitzua.



MUSIKAZ
BLAI

Irantzu
GONZALEZ
AZPIROZ

Dantzaria / ALTSASU

Ekainak 16, ostirala,
10:30etik aurrera
eta errepikapena 14:30etan

Beleixe irratian

Ezetz
asmatu
zeintzuk diren
bere kantu
kuttunak
Piztu irratia!





Pilaturako aluminio profilak. ARTXIBOA

Hydron, hidrogeno berdez, birziklatutako aluminioa

Erregai hori erabilia ekoizpen prozesua egiten duen munduko lehen lantegia da Irurtzungoa; orain arteko probak laborategian eginak ziren. Hydro enpresak aluminioaren sektorearen deskarbonizazioan liderra izan nahi du

IRURTZUN

Hydro enpresak jakinarazi duenez, hidrogeno berdea energia iturri gisa erabiliz aluminio birziklatuko lehendabiziko lotea ekoiztea lortu du. "Mugarri hori mundu mailan lortzen den lehen aldia da, eta konpainiak Irurtzunen duen estrusio plantan gertatu da", gaineratu dute. Proiektu pilotu horrekin lorpen hori lortzeko, aluminioa birziklatzeko galdaketan erregai gisa erabili ohi den gas naturalaren ordezkari gabeko hidrogeno berdea erabili dute. Hydrotik jakinarazi dutenez, "ekoiztutako aluminioa Hydro Extrusion Navarran bertan erabiliko da birziklatze prozesuan hidrogenoa erabili duten aluminio estrusio-natuzko lehen profilak egiteko". Enpresako arduradunek gaineratu dutenez, "arlotan, Irurtzungo lantegia erreferente izango da Hydro taldeko beste konpainia batzuetarako". Hidrogenoa eta gasa tenperatura desberdinetan erretzen dira. Horrek

fusio prozesuan eta aluminioaren kalitatean nola eragin dezakeen ikertu eta aztertuko dute urte bukaerara arte.

Enpresako ordezkariak gaztigitatu dutenez, "orain arte, hidrogenoarekin egindako proba eza-gunak laborategian bakarrik egin dira. Orain Irurtzungo plantan egindakoak dira munduan industria mailan arrakastaz egiten diren lehenak, hidrogeno berdea erabiliz energia iturri gisa aluminio birziklatuaren ekoizpenean". Paul Warton Hydro Extrusions enpresako lehendakariorde exekutiboak azaldu duenez, "proba horiekin gogoia berotua dugu, Hydro industriaren deskarbonizazio prozesuarekin duen konpromisoa

"GARRANTZIA IZAN DEZAKE TENPERATURA ALTUAK BEHAR DITUZTEN BESTE PROZESUETARAKO"

erakusten baitute. Energia iturritik CO₂ isuriak kenduz, kontsumoaren ondorengo txatarra erabiliz karbonorik gabeko aluminio birziklatua ekoizteko gai izango gara".

Hydro hidrogeno berdean espezializatutako konpainia bat du, Hydro Havrand. Hango adituek egin eta zuzendu zituzten Irurtzungo lantegiko probak. Horretarako, Fives North America Combustion industria ingeniartzako taldearen lankidetzan izan zuten.

Per Christian Eriksenek, Hydro Havrandeko arduradunak, esan duenez, "proiektua erregai fosilak ordezkatzeko irtenbide komertzialen garapenean parte da, eta hidrogenoa aluminioa ekoizteko erabil daitekeela erakusten du. Hidrogeno berdeak murrizteko zailak diren isurketak ezaba ditzake elektrizitatea alternatiba ez den prozesuetan, bai aluminioaren industrian, bai beste industria astun batzuetan (zementua, beira...)"



Iñigo Orella, Amets Aznarez eta Maider Ansa aurkezpenean. UTZITAKOIA

Nafarroa osoan euskara ofiziala izatea eskatzen du Oinezek

Ikastolen festaren aurtengo kanta 'Nafarroa osoan bai!' da. "Doinu dantzagarriak, udako festetarako"

SAKANA

Andra Mari ikastolak aurtengo Nafarroa Oinezeko kanta eta bideoklipa aurkeztu zituen asteartean (*labur.eus/YcDPG*). Ikastolako zuzendari pedagogiko Iñigo Orella Altzuetak azaldu duenez, kantak "euskararen ofizialtasunaren eskaera Nafarroa osorako" egiten du. Orellak esan duenez, "kantaren letran ageri den 'bai' eta 'ez' jokoarekin, Nafarroaren zonifikazioa eta banaketa salatu nahi dira". Musika Joseba Tapiak egin du eta letra Maddalen Arzallusek. Hari ahotsa Olaia Inziartek, Ne-

rea Erbitik, Maider Ansa, Leire Letuk eta Kristina Aranzabek jarri diote. Gainera, honako musikariek parte hartu dute: Jon Celestino (tronpeta); Amets Aznarez, Eneko Urrestarazu eta Arkaitz Nagore (tronboia); Ibon Irixoa (saxoa); Iker Uriarte (bateria), Xanti Etxeberria (baxua), eta perkusio eta soinu teknikari eta nahasketa lanetan Estudio Bat!eko Peio Skalari.

Bestetik, gogorazi zuten San Fermin festetan Iruñeko Oinez Txokoa zabalduko dutela, 10:30etik eta 02:00ak edo 03:30ak arte egonen da zabalik.

BAKARREKO ETXEA ELKARTEAREN ALOKAIRUA 2023 FESTETAN

Bakaikuko Bakarreko Etxea elkarteak bi lokal alokatzen ditu uztailaren 21etik 25era bitarte ospatuko diren festetan. Alokairua lortzeko baldintzak hurrengoak dira:

1. Espazio BAKOITZAREN ALOKAIRUA 1500€koa izanen da.
2. Bi lokalak alokatzeko izena emateko EPEA EKAINAREN 23AN arratsaldeko 17:00etan bukatuko da. Eskaintza elkarteko atean dagoen postontzian sartu behar da, gutun azal itxi batean hurrengo informazioarekin: Lokal aukera (zulo/ elkarre handia), izen abizenak, telefonoa eta posta elektronikoa.
3. Gutun azalak ekainaren 23ko arratsaldeko 17:00etan irekiko dira elkarteko zuzendaritzan, bertaratzeko aukera dago.
4. Zalantzak argitzeko deitu 660 698 738 telefonora edo bidali posta elektronikoa bakarrekotxea@gmail.com helbidea.



Festetan ere "denon bizitzak erdigunean"

Horixe aldarrikatu du Sakanako mugimendu feministak. Festak antolatzen dituzten batzorde eta eragileei ikuspegi feminista kontuan hartzeko eskatu diete. Gizonezkoei, berriz, erasoen konplize ez izateko eta zaintza lanetan ardura hartzeko

UHARTE ARAKIL

Festak direla eta, Sakanako mugimendu feministako kideek azaldu dutenez, "festak gure jendartea antolatuta dagoen moduan eta ditugun balioen adierazpena dira. Festek norbanako eta komunitate gisa ditugun nortasun, ideologia, hierarkia eta egiturak birstortzen dituzte, eta ditugun gatazkak, botere harremanak, rol banaketak nahiz indarkeria egoerak azaleratzen dituzte". Feminista sakandarrek nabarmendu dutenez, "ezinbestean kontuan hartu behar dugu jai eremu eta egunetan, euforia eta hainbat drogen kontsumoaren ondorioz eta 'dena libre' denaren aitzakia pean, ohikoak direla emakumeekiko nahiz bestelako genero identitateekiko hainbat eratako eraso matxistak".

Horiek horrela, Sakanako mugimendufeministariezinbestekoa iruditzen zaio "antolatzen eta garatzen dugun festa ereduaren inguruko hausnarketa eta lan-



Sakanako mugimendu feministako ordezkariak asteartean egindako agerraldian.

keta egitea ikuspegi feministatik". Horregatik, Sakanako udalei eta herrietako festak antolatzen dituzten batzorde eta bestelako eragileei hiru eskaera egin dizkiete. Lehenik, festen antolakuntzan herrietako talde feministen

eta emakume anitzen parte hartzea bermatzeko edota horien ekarpen eta proposamenak kontuan hartzeko. Bestetik, festetako egitarauak prestatzerakoan, genero estereotipoak eta rolak irauli eta balio eta eredu eraldatzaileak lantzen dituzten jarduerak (kultur ikuskizunak, kirol ekitaldiak...) programatzeko. Eta, azkenik, festetan gertatzen diren eraso sexista, lesbofobo, homofobo, transfobo eta arrazistak arbuizatzeko eskatu du mugimendu feministak.

Gizonezkoendako bi dei ere badituzte feminista sakandarrek. Batetik, gerta daitezkeen eraso konplize ez izateko. Eraso horiek izan daitezke, besteak beste, komentario eta txiste matxistak, ukituak, irainak, mespretxuak nahiz bestelako eraso. Horien kontrako jarrera aktiboa hartzeko eskatu diete gizonezkoei Sakanako mugimendu feministatik. Bestetik, festetan ere etenik ez duten zaintza lanak (haurrena eta adinekoena edo menpekotasuna duten pertsonen zaintza) eta etxeko lanak (otorduak prestatu, arropak garbitu...) euren gain hartu eta erantzunkidetasunez jokatzeko.



Gure Eskuk ikurrinak erakutsiz bertan herri bat dagoela erakutsi nahi du.

Gure Eskuk Tourrean ikurrinak erakustera deitu ditu herritarrak

Etapen hasieran eta bukaeran mila ikurrin erakutsi nahi dituzte. Bide bazterrera ere eramateko eskatu dute

SAKANA

Frantziako Tourraren aurtengo edizioaren aurreneko hiru etapak Euskal Herrian jokatu dira garilaren 1ean, 2an eta 3an. Mundu mailako kirol lehiaketa horrek Euskal Herria mapan jarriko du. Horretan ere ahaleginduko da Gure Esku dago. Eskualdez eskualde *Euskal Herriak erabaki!* bere egitasmoaren berri emateko eskualdeka aurkezpenak egingen ari da. Sakanakoa Altsasun egin zuen astelehenean eta Unai Jimenez Etxandiak eman dizkigu azalpenak.

Jimenezek ekimena Gure Eskuren nazioartetzeko estrategia- ren baitan kokatu du ekimena, "Euskal Herriak behar duelako kanpoko aitortza". Horretan aurreneko pausoa joan zen urteko Pirinioetako Bidea izan zen. Gure Eskuren aurreko ildo jarraituz, "zazpi herrialdez osatutako herri bat gara. Hortaz, ideia nagusia da orain dauden errelatoei buelta ematea, eta nazioartean plazaratzea hemen mugek banatutako herri bat dagoela". Horretarako, Gure Eskuko kideen asmoa da Tourraren Euskal Herriko hiru etapen hasiera eta bukaera baliatzea. Jimenezek azaldu duenez, "etapa bakoitzeko lehen eta azken kilometroko bide ertzak ikurrinaz bete nahi ditugu. Zeresana emateko bai kazetari, jendearen eta txirrindularien artean".

Ikurrinez osatutako pasabide hori osatzeko Gure Eskuko kideek kalkulatu dute hasiera eta bukaera bakoitzean mila lagun

beharko dituztela, "bostehun pertsona errepidearen alde batean eta beste horren beste beste aldean". Jende asko behar dutenez, "garrantzitsua da herriak mugitzen hastea". Ekimenarekin bat egin nahi dutenek Gure Eskuren web orrian (<https://labur.eus/jdng3>) izena eman beharko dute. "Han zentralizatuko ditugu izen emate guztiak", azaldu du Jimenezek, gaineratu duenez, "oraingoan eskualde bakoitzak ez du toki batera joan beharrik izan. Sinplifikatu egin dugu eta bakoitzak nahi duen puntura joateko ahalmena izango du. Izena emateko epea ia-ia etapak hasten diren arte zabalik egonen da. Lehentxeago itxiko dugu". Tourra jokatzeko den egunetan, lasterketa pasako den errepideak lau ordu lehenago itxita egonen dira. Etapa hasiera eta akabertara iristeko aplikazioa aterako dutela gaztigitu du Gure Eskukoak. "Eskualdeetan autobusak antolatzeko gaitasuna balute, autobus horiek sartuko genituzke izena emateko aplikazioan eta bertatik ere zentralizatu kudeaketa hori".

Jakinik airetik ateratako irudiak deigarriak direla eta antolatzaileei asko gustatzen zaiela, "arreta pizteko" Gure Eskukoek ikurrina erraldoi bat mugituko dute batetik bestera Tourra Euskal Herrian den bitartean. Harekin batera, beste ikurrina handi batzuk ere baliatuko dituzte. Horiek ere batetik bestera mugituko dituzte Gure Eskuko kideek.

DUELA 25 URTE...



Parke berria Ihabarren

Ihebardarrek auzolanean haurrentako jolas parkea eraiki zuten pilotalekuaren eskuineko aldean. Bukatu berria zuten lana hainbat auzolanen fruitu izan zen. Espazioak hiru zati zituen. Alde batean, koloretako galtzadarriz herriko armarrira irudikatu zuten. Beste batean belarra erein eta zuhaitzak landatu zituzten eta, azken zatian, umeek jolasteko tresnak jarri zituzten. Baita zati batean hondartzako harea ere. Herriko laugarren iturria han jarri zuten.



Berriain magalean dagoen Auzasoroburu dermioan pala lanean. ARTXIBOA

Auzasoroburu dermioa lehengoratzeko pausoa

Bargan dago eta kaskailua atera zuten. Han lurra botaz lehengoratuko dute. Udalak hamar urteko proiektu bat onartzeko lehen pausoa eman du eta jendaurrean da. Gauzak ongi lehengoratzeko proiektua aurten eginen da

UHARTE ARAKIL

Joan den mendeko 90eko hamar-kadan egin zuten Sakanako Autobia (A-10). Errepide azpiegitura berria egiteko, oinarria jartzeko, kaskailua behar zen. Horretarako, Nafarroako Gobernuko arduradunek mendi magalari begiratu zioten eta kaskailua ateratzeko zenbait harrobi egin zituzten. Kaskailua atera zuten tokietako bat Uharte Arakilgo bargan dagoen Auzasoroburu dermioa izan zen. Azpiegitura egin ondoren, barga zati hura bere kabuz lehengoratzeko joan da pixkanaka. Eremu horren berri zuten hainbat enpresak eta han lurra botatzeko eskaerak izan ditu udalak behin baino gehiagotan. Hala jakinarazi du Txomin Uharte Baleztena jarduneko alkateak, eta hurrengo legegintzaldian ere udal burua izanen denak. Baina, orain pausoa ematea eta Auzasoroburu lehengoratzeko erabaki du udalak.

Uharte Arakilgo jarduneko alkateak azaldu duenez, "uholdeek eragindako kalteak konpontzeko garaian lur begetala nora eraman aztertzen hasi eta han uztea pen-

tsatu genuen. Eta hortik etorri da gero eremua berreskuratzea-rena". Udalaren asmoa da enpresa bati ematea berreskurapena egiteko proiektua. "Egitasmoa egiterakoan, ekarpenak egiteko aukera izanen da, eta orduan erabakiko da nola moldatuko den, nola geldituko den dermio hori: larrerako utzi, basoberritu edo zer egin", argitu du Uhartek. Gaineratu duenez, "han lurrak botatzeko kontratua hartzen duenak udalaren baldintzak bete beharko ditu. Eta Nafarroako Gobernuak gainbegiratu du. Guztia ongi araututa egonen da", nabarmendu du alkateak.

Auzasoroburua lurra bota eta proiektua gauzatzeko arduraren hartzen duen enpresak 77.907,26 metro karratu izanen ditu eskura hamar urterako. Hara lurra eramaten duten enpresak ordaindu egin beharko dute. Helburua diru etekina ateratzea baino, dermioa lehengoratzeko dela zehaztu du alkateak. "Behin bukatuta, udalak herri lur egokiak eskuratuko ditu", azpimarratu du. Proiektua egiten duen enpresak pistaren mantentzeaz arduratu beharko duela ere jakinarazi du.

LANDA NAFARROA LOTU
Tokikoa, Jasangarria eta digitala

CONECTA NAVARRA RURAL
Local, sostenible y digital

Nafarroako Lurralde Ekintza Taldeen arteko lankidetzaren proiektua, lurraldeen Erronka demografikoari aurre egiteko, lurraldeen arteko konektibitatea sustatuz.

- **Populazioaren, enpresen eta administrazioaren arteko KONEXIO DIGITALA**
- **KONEXIO FISIKOA** Mugikortasunerako soluzio jasangarriak
- **BERTAKO PRODUKTUEN** eskaintza eta eskariaren arteko **KONEKTIBITATEA**

ESKAINZA DOAKOA

LOTU ZAITEZ

Informazio gehiago hemen:
conectanavarrarural.org

**TAILERRAK
JARDUNALDIAK
IKASTAROAK
LANSAIOAK
HITZALDIAK
ESCAPE ROOM-a**

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA
Koskobiloko arkeologia aztarnategian 2020an hasi ziren arkeologoak lanean. Aurtengoa laugarren kanpaina dute han. Kobazuloa hitz egiten hasi da, agertu dira kastorearen matrail hezurra, azeri baten kaskezurra, landutako harriak eta beste. Aztarna gehiago opatu eta ikerketan sakontzeko asmoz bueltatuko dira arkeologoak aurtun ere.

Koba, kasik, etxe bihurtuko zitzazun, ezta?

Bai. Azkenean, koltxoia ekarri eta hemen lotan geldituko naiz. **Indusketa kanpaina berria prestatzen ari zarete?**

Hori da. Azkenengo ukituak ematen ari gara eta heldu den hilabetean hemen egonen gara berriro, urtero bezala.

Orain arte ahuntzen moduan iritsi zarete kobara, zenda txar batetik gora. Aurtun aldaketa egin dute ibilbidearekin.

Aurtun luxua izango da hona igotzea. Euria egiten zuenean eta pixka bat arriskutsua jartzen zen; ez baldin bazuen euria egiten, beno, kontu handiarekin ongi igo zitekeen, baina euriarekin ezin ginen igo, ezinezkoa zen. Aurtun oso ongi, toldoa eta guzti jarri digute.

Eta kobazuloaren parean 10 m² dituen plataforma bat.

Industen gauden bitartean jendea etorri ahal izateko. Guretako baita, erosotasun pixka bat izateko, zeren lekua ez da batere eroso.

Aurtengoa laugarren indusketa kanpaina.

Hori da. 2020an hasi ginen, pandemiaren urtean hain justu, talde txikitxo batekin; burbuila talde batekin. Eta pixkanaka.

Zenbat jende etorriko zarete lanera?

Egia esan, ez asko, lekua txikia baita. Sei, gehienez zazpiko taldea izanen da. Ez oso handia, ez.

Zuk parte hartuko duzu?

Dani Ruiz Gonzalez burua izanen da eta ni laguntzen egongo naiz.

Garila guztia emango duzue? Edo gehiago?

3tik 23ra, 3 aste izango dira.

Lantokian kuxkurtuta lan egin behar oraindik ere.

Bai. Gainera, barrura sartzen baldin bagara gehiago, oraindik lurrez tapatuta baitago. Lur pila bat dauka, baina, beno, jada lekua eroso jartzen ari da. Nire altue-arekin, ni ia-ia zutik sartzen naiz, beraz, luxua da.

"Aztarnategiak esango du zenbaterako daukagun hemen"

OLAIA GRANIZO CANDELAS ARKEOLOGOA

Bere proiektuak aurrera egiteko erantzunaren zain dagoen bitartean, arkeologo altsasuarrak galtzak bete lan izanen du uda honetan



Olaia Granizo Candelas arkeologoa, Koskobilo leizean.

Koban barrurantz eta behearantz egin duzue. Koloretako txintxetak ikusten dira, estratuak.

Industen goazen bitartean estratigrafia deitzen duguna jarraitzen dugu. Hostopil tarta baten modukoa da; kapaka lurra segmentatu egiten da eta guk hori jarraitzen dugu. Horren arabera, 1. maila, 2. maila, 3. maila... Argazkitarako eta marrazkiak egiteko eroso egiten zaigu markatzen joatea txintxetekin. Txintxeta kolore bakoitza maila desberdin bat da. Horrela oso bisuala da. Eta bisutan etortzen den jendearendako baita. Esaten diezu: "hauek bi maila desberdin dira", eta beraiek ez dute ikusten, normala da. Hasieran nik ere ez nuen ikusten. Beraiendako ere eroso da, horrela argi ikusten dute, bisualizatzen dute.

Opatu dituzuen aztarnek zer diote? Zein garaitan zaudete?

Arkeologia materialek esaten digute orain dela 6.000 urteko mailan gaudela, lehenengo nekazari abeltzainekin. Baina behean, kobazulotik pixka bat barrurago, pixka bat gehiago jaitsi dugu eta ematen du maila zaharragoa badela. Baina

"LEKUA ESATEN DIGU EHORZKETA EGITEN ZUTELA, EZ ZUTELA ERRAUSKETARIK EGITEN"

oraindik ez gara iritsi, hortxe gaude.

Zuena pazientzia lana da eta iritsiko da, ezta?

Bai, hori da. Aurtun ez dakit, baina hemendik pare bat urtera edo hirura iritsiko gara.

Zer aztarna agertu dira?

Topatu ditugu zeramika zatiak. Fauna baita, baina ez gehiegi. Eta giza hezurak. Lekuak esaten digu ehorzketa egiten zutela, ez zutela errausketarik egiten. Garai horretan nahiko ohikoa da kobazuloetan ehorzketak topatzea, trikuharri eta kobazuloetan, bai.

Duela 6.000 urteko olaztiarrak, nekazariak, abeltzainak zirenak, hemen ehorzten zituzten.

Bai, hori da.

Suharriak ere opatu dituzue, ezta?

Bai, Urbasan suharri aztarnategi oso garrantzitsua dago. Eta, logikoki, hemen opatzen ditugu. Beharbada %99 Urbasako suharria da. Baina hemendik kanpo ere topatu da, hainbat tokitan. Lehenengo nekazari abeltzain haiek ez diote bat-batean suharria erabiltzeari uzten, oraindik ez zuten metala erabiltzen. Ehizatze- eta beharrezkoa zuten, nahiz eta zeramika eta agertzen joan, eta beste material batzuk erabiltzen zituzten. Suharria oraindik ez zuten alde batera utzi.

Koban lanean egonen zarete. Baina Koskobilo aztarnategiak eremu zabala hartzen du. Badaude Koskobilo II, Koskobilo III, Koskobilo IV... Inguruan ariko zarete lanean? Printzipioz, ez. Aurtun, bakarrik kobazuloan. Batzuetan ematen dugu buelta bat hemendik goitik eta gainazalean eta dauden materialak jasotzen ditugu. Baina, printzipioz, hemen bakarrik egongo gara.

Hala ere, etortzen zareten bakoitzean, bide hasieran eskuinera begiratu duzue araztegiko lanekin zer gertatzen den ikusteko?

Momentuz, ongi. Hau da, dena ongi erregistratu eta ongi jaso zen. Adi egonen gara, bi tokitan egongo baikara.

Zenbat urteko jarduna duzue hemen?

Asko, asko, asko. Pixkanaka goaz. Ez dakigu kobak zenbateko sakonera izan dezakeen, beharbada bost metroko sakonera dauka, bi edo hamabost. Beraz, pixkanaka-pixkanaka eta hamar urte erraz. Aztarnategiak esango du zenbaterako daukagun hemen.

Aztarnak hemendik aterata, zer ibilbide egiten dute?

Agertzen denean, pixkanaka ateratzen hasten gara. Erreminta finarekin aritzen gara, labanak, edo hobe egurrezko makilatxoak, materiala ez hondatzeko. Ondoren erregistratu egiten dugu. Bere zenbakia ematen diogu. Bere tokia zehazten diogu GPS moduko batekin. Jaso eta laborategira. Laborategiko lana da garbitzea eta sigla bat ematea, nortasun agiri moduko bat da. Sigla bakoitzak bere izen eta zenbaki propioa dauka. Horrela, erraz bilatu dezakezu datu basean. Ondoren, inbentarioa. Azkenik, Nafarroako Gobernuako arkeologia deposituan uzten da, eta ikerketa hasten da.

Beraz, hemen egon ondoren, etxe-ko lanak.

Jende guztiak pentsatzen du arkeologia dela menditik ibiltzea eta egunero industen egotea. Baina %80a laborategiko lana da. Lau aste egoten gara, normalean udan, zeren neguan euria-gatik eta ezin da industerik egin. Laborategi lana eta ikerketa urtean zehar egiten dugu.

Aranzadi zientzia elkartekoak elkarlanean aritzen zarete?

Batzuetan Aranzadiko topografoa daukagu. Geologoak ere bai. Burgosko Unibertsitateko geologoak ere etortzen dira. Azkenean, kobazulo bat da, geologia da, beharrezkoa da. Eta Euskal Herriko Unibertsitateko doktore eta doktoregai batzuk ere bai. Ikerketan elkarlana beti-beti.

Hemen opatutako aztarnak noizbait jendaurrean ikusiko dira?

Ez dakit, egia esan. Azkenean, aztarnategi pila dira, pieza pila bat dira eta museoa museo bat da, txikia da eta ez dago lekurik. Ezin da dena erakutsi. Pena da, baina ezin da. Aukeraketa egiten da. Eta, nik uste, Nafarroako Museoan badaudela Koskobiloko pieza batzuk ikusgai jarrita. Baietz esango nuke. Nik gomendatzen dut beti bisita bat egitea eta Nafarroan zer daukagun ikustea.

Arkeologoen garai gorena da uda. Batetik bestera ibiliko zara?

Bai. Hemen egongo naiz garilarren 3tik 23ra, baina aste honetan Irulegiri hasi gara. Ondoren, ona etorriko naiz, atzera ere Irulegira bueltatzeko. Beraz, uda osoa batetik bestera. Nik gomendatzen diot jende guztia-ri Koskobilora bisitan etortzea. Orain oso ongi dago igotzeko, gonbidatuta daude.

Historiaurrerako bidea



Abiapuntua

Ibilbidea kiroldegiko aparkalekutik abiatzen da. Han ibilbideari buruzko informazioa ematen duen informazio panela dago. Marra berdeei segituz, ibiltaria frontoiraino jo eta, han, behera egiten duen kalea hartu.



Ornako iturburua

Bidean 380 metro aurrera eginda iritsiko da ibiltaria. Koskobilo kareharri harrobi izatetik erreferentziak arkeologia aztarnategi izatera pasatzeko zer gertatu den azaltzen du panelak, langileetatik zientzialarietara.



Bide ertzean

Koskobilo I Nafarroako Kuarternarioko aztarnategirik zaharrena da. Harrobiak 1940an desegin zuen lezea barruko lurra belarrez estalita dago egun. 38 ugaztun eta 6 hegazti espezierekin aztarnak opatu dituzte.



Bidegurutzeta

Autobia eta trenbide azpitik pasa ondoren, aurrera egin, Burunda ibaia pasa eta bidegurutzean eskuinekoa hartu. Panelaren bidez jakin daiteke aniztasun handiko itsaso tropikala zela inguru guztia duela 100 milioi urte.



Kobarako xenda

Aisaldi gunearen ondoan abiatzen da Kobarako 200 bat metroko bidea. Koskobilo IV gunea da eta han Madeleine aldiko (16.000-13.300 urte) aire zabaleko kanpaleku bat egon zen. Eta suharri lantegia Paleolito akaberan.



Azkena

Koskobilo IV iritsi aurretik dagoen panelak kobak hildakoak lurperatzeko balio duela azaltzen du. Opatutako aztarnak, gutxienez, bi gizakirekin dira: 14-16 urtetik gorako pertsona heldu batenak eta 2 urteko ume batenak.

Bertako historiaurrea ezagutzeko ibilbidea egina

Udalak Koskobilo arkeologia aztarnategiari bulkada ematen segituko duela jakinarazi du

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Olatzagutiko Udalak eta Aranzadi zientzia elkartek herriaren eta Koskobiloko harrobi zahar- raren ingurunearen arteko ibilbidea aurkeztu zuten hilaren 9an. Joseba Vizuete Askargorta jarduneko alkateak azaldu zuenez, ibilbidea bertako historiaurrea ezagutzeko modua da. Gaineratu duenez, ibilbidearen helburua "herriko ondare geologiko, paleontologiko eta historiko arkeologikoari balioa ematea da". Vizuetek azaldu duenez, "balioko du Olatzagutia mapan kokatzeko, jendeak herria non dagoen jakiteko, eta zer dagoen Olatzagutian. Aranzadikoek esan dutenez, Koskobilo II Nafarroako Atapuerka txiki bat izan daiteke". Udalaren asmoa da Sakanako Garapen Agentziarekin batera Koskobiloko arkeologia aztarnategia bulkatzea. Hala azaldu du Vizuetek.

Alkatearen arabera, olaztiarrak "oso pozik" daude, "baita agertzen ari diren aztarnekin harrituta ere". Gogorarazi du antolatutako gidatutako bi bisitetan jendea kanpoan gelditu zela, "bidea ez zelako hain irisgarria". Jakinarazi duenez, "aurten, atzera ere, saiaturako gara halakoak antolatzen jendeak ondarea ezagut dezan".

Vizuetek gaineratu duenez, eskolarekin aztarnategiaren ingurukoak ere landu dituzte. Ikasturte berrian ikastetxearekin harremanetan jarriko da udala, "haurrek ere ezagut dezaten. Bestalde, Udan Euskaraz-en izena emandako haurrak ere etortzen dira. Gainera, festetan, Aranzadi zientzia elkarteko haurrendako tailerrak egingen dituzte".

Koskobilo arkeologia aztarnategia bere osotasunean kontuan hartu du Olatzagutiko Udalak. "Oso garrantzitsua da Olatzagutian halako kobazulo bat egotea. Jakitea zer animalia mota zeuden ibarrean: makakoak, errinozeroak... Halakoak bakarrik Afrikan ikusten ditugu gaur egun, Halakoak Olatzagutian izan direla jakitea oso interesgarria da", azaldu du alkateak. Horregatik, hain zuzen, "aurtengo udal aurrekontuetan 100.000 euro



Joseba Vizuete, Olatzagutiko alkatea.

jarri ditugu lanean jarraitzeko asmoz. Aranzadiko kideekin hitz egin behar dugu kobazuloa eta harrobia nola lotu, Koskobilo I nola landu (1940ko lezetik ateratako lurra mendian behera botata dago). Aranzadikoek esandakoaren arabera, kobak sakan- tasun handia duela ulertzen dugu". Aipatutako harrobia kobaren gainean dago. Cementos Portland Valderrivas enpresak hura lehengoratzeko plana egin du. "Dauden hondakinak eramateko enpresarekin harremanetan gaude. Asmoa da harrobiko plaza ibilbide polit bat egitea. Gainera, ahuntzetxeko bidea eta beste lotu nahi genituzke, Koskobilo eta beheko basoa mugitzeko. Lanean jarraitzeko asmoa dugu. Dozena bat urte edo gehiagorako lana dute koban".

Aranzadi zientzia elkarteko kideak garilean koban lanean ikusteko aukera izanen dela gogorarazi du. Horrekin batera, jakinarazi du garilaren leian ibilbidearen eta indusketa lanen aurkezpena egingen dela.

www.promocionesamayna.com

IRURTZUN BERRI

948 071 935

FESTAK

ETXARRI ARANATZ SAN ADRIAN

EKAINAK 16 Ostirala

09:00 Udalbaltzaren kalejira, udaletxetik San Adriana.
11:00 Fritada.
12:00 Elizkizuna.
13:00 Dantza taldearen emanaldia.
15:00 Bazkariak.
17:00 Txistularien erronda mahaiz mahai.
18:00 Kintoen dantzakia.
19:00 Kalejira herrira.
20:00-21:00 eta 22:00-02:00 Trikidantz taldea, plazan.

LIZARRAGA SAN ADRIAN FESTAK

EKAINAK 17 Larunbata

10:30 Ezkilen errepikarekin batera San Adrianera igoera.
13:00 Meza, ermitaren inguruetan.
17:30 Kalejira Amalur taldearekin.
18:30 Menditik jaitsiera.
19:00 Auzatea, alkatearen etxean.
19:45 Lizarragako zortziko dantza eta 2022an jaiotako hurrei festetako zapi ematea.
21:00 Trikiteens taldearekin dantzaldia.
22:00 Herri afaria, frontoian. Gauean, Trikiteens taldearekin dantzaldia.

EKAINAK 18 Igandea

12:30 Haurrendako puzgarriak, tandem eta balanz bikes, frontoian. Beraingoa goizalde koralak taldearen kontzertua, elizan.
13:00 Herri meza, elizan. Ondoren, luntxa, elkartean.
16:30 Haurrendako puzgarriak, tandem eta balanz bikes, frontoian.
19:00 Auzatea, herriko plazan.
19:30 Los Tenampas taldearen kontzertua, plazan.

EKAINAK 19 Astelehena

11:00 Gosaria, plazan. Goizean zehar, Iñaki Vizkay bere akordeolariarekin.
17:00 Emakumezkoen pala pilota partidua, frontoian.
19:00 Auzatea eta Joselu Anaiekin dantzaldia, plazan.
21:00 Herri afaria, plazan.
23:30 Joselu Anaiekin dantzaldia, plazan.

BAKAIKU MAIATZA

EKAINAK 17 Larunbata

18:00 Maiatza herriko plazan jasoko dute, Bakaikuko Gazte Asanbladak antolatuta. Ondoren, pintxopotea.

IZURDIAGA

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 23 Ostirala

20:00 Txupinazoa
22:30 Norberak ekarritako afaria. Tortilla eta postre lehiaketa.
00:00-05:00 DJ Felix emanaldia.

UHARTE ARAKIL

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 23 Ostirala

14:30 Herri bazkaria. Uharteko Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.
18:00 Festen hasierako suziria.
18:00 Eztanda txarangaren kalejira. Uharteko Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.
18:30 2022an jaiotako haurrendako zapi banaketa, konpartsak lagunduta. Auzatea jubilatuen eskutik.
20:00 Tortilla patata lehiaketa.
22:00 San Juan suak faldunak lagunduta.
00:30-04:00 Leian taldearekin dantzaldia.
04:00-05:00 Karaokea, txoznan. Uharteko Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.

ARBIZU

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 23 Ostirala

19:00 Festa hasierako kohetea eta brindisa, plazan.
19:30 San Juan ermitara igoera Zidakos txarangarekin.
20:00 Bezperak, ermitan.
20:30 Kintoen *Marialombren zaldiya* dantza, ermitaren aurrean.
21:30 Herrira jaitsiera Zidakos txarangarekin.
23:30-04:00 Trikidantz taldearekin erromeria, plazan.

AIZKORBE

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

Iluntzean haurrendako jolas parkean elkartu eta sua egiten dute. Han afarirako jakiak prestatu eta, afaldu ondoren, su gainean salto egiten dute.

ERROTZ

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

21:00 Nafarroa plazan elkartu eta sua piztuko dute. Sua apaltzean afaria prestatuko dute bertan eta, ondoren, su gainean saltatuko dute.

IRURTZUN

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

22:30 San Joan gaua: joaldunak, Iskidiko pertsonaia mitologikoak eta suak, plazan. Aizpea euskara taldeak eta Pikuxarrek antolatuta.

ETXARREN

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

19:00 Sua piztu eta afaria prestatuko dute.

EKAIN

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

21:00 Plazan, iturriaren ondoan, sua piztu eta afaria prestatuko dute.

ZUHATZU

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

19:00 Autobus geltokiaren parean sua eta otamena egiten dute.

SATRUSTEGI

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

Iluntzean, sua piztu eta barbakoa egiten dute.

HIRIBERRI

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

20:00 Txiteraren ondoan elkartu, sua piztu eta haren gainean saltoka ibiliko dira.

IHABAR

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

21:30 Sua egin eta txistorrak eta sardinak prestatuko dituzte.

IRAÑETA

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

20:30 Frontoiarene eta Txapel Azpi elkartearen atzeko aldean elkartu eta otamena izanen da. Ondoren,



ETXARRI ARANATZ Etxarriarrek patroia eguna ospatu zuten. Euskalerriri frontoian elkartu ziren herritar gehienak, euriaren ondorioz.

sua piztu eta saltoka ibiliko dira.

ARRUAZU

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

22:00 Su handia piztuko dute eta kanpandorreak igotakoek ezkila errepika egiten dute.

LIZARRAGA

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

Iluntzean, afari merendua, Intxorreta karrikako aldamenean. Ondoren, sua piztu eta haren gainean saltoka ariko dira.

LIZARRAGABENGOA

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

22:00 Sua egin eta haren gainetik salto egiten dute, plazan.

ETXARRI ARANATZ

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

Karrika bakoitzak bere sua piztuko du eta haien inguruan elkartuko dira aldamenak.

BAKAIKU

UDAKO SOLSTIZIOA

EKAINAK 23 Ostirala

19:00 Meriendak.
20:00 Auzatea.
22:00 Sua piztea.

URDIAN

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

19:30 Herrietxetik San Juan ermitara kalejira, txistulariekin, garai bateko jantziak daramaten neskekin eta dantzari txikiekin. Iristean, meza, ermitan.

Ondoren, sua piztu, San Juan kantaita eta dantzari txikien emanaldia, ermitako plazan. Herrian bueltan, auzoka afariak egiten dituzte.

ALTSASU

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

16:45 Txupinazoa trikitalariak lagunduta, San Joan plazan. Ondoren, animazioa Levelibular taldearekin.
18:30 Txokolate jana Chuchin Ibañez y los Charrosek girotua.
19:30 Udalbaltza, Altsasuko Txistulariekin batera, udaletxetik San Joan ermitara abiatuko da.
19:30 Udako solstizioa ospatzeko festa, eta auzatea, Foru plazan. Kukuerekek antolatuta
20:30 Festaren hasiera: San Joan ermitan sua piztea. Herriko suak pizteko txupin iragarlea. Kalejira San Joan ermitatik Foru plazaraino Altsasuko Txistulariek lagunduta.
21:30-22:30 Eztanda Txarangak suak dauden kaleak girotuko ditu.
23:00-02:00 Dantzaldia Ana Ganuza eta DJ Javivimaxekin, San Joan plazan.

OLATZAGUTIA

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

19:00 Pintxopotea. Maisuenea gaztetxeak antolatuta.
21:00 Barbakoa. Maisuenea gaztetxeak antolatuta.
00:00 Sua. Maisuenea gaztetxearen parean.

ZIORDIA

SAN JUAN OSPAKIZUNAK

EKAINAK 23 Ostirala

18:00 Batuekora erromeria eta auzatea.
21:00 Herri afaria.
22:30 Plazan su handia.



Itzuliko eta etapako talde irabazlea eta irabazle indibidualak NAFARROAKO ITZULIA

Nafarroako Itzuliaren 60. edizioa jokatu da

TXIRRINDULARITZA Finisher taldeko Hugo Aznar izan da garaile, 27 urtetan lasterketa irabazi duen lehen nafarra bilakatuz, eta Iker Mintegi altsasuarra orpoz orpo ibili da. Gil eta Lasa sakandarrak ere lehian aritu dira

Iñaki Rubio Mendoza NAFARROA Nafarroako Itzuliak 60. edizioa izan du aurtengoa. 140 txirrindularik osaturiko pelotoiak ia 600 km egin ditu Nafarroan zehar pasaden ekainaren 8, 9, 10 eta 11an, lau etapa zirrarragarritan. Osotara, elite eta Sub23 kategoriako hogeitai taldek korritu dute itzulia.

Halaber, hiru sakandar aritu dira tartean: Iker Mintegi (Laboral Kutxa) altsasuarra, Ailetz Lasa (Laboral Kutxa) ziordiarra eta Jon Gil (Gomur Cantabria Infinita) lakuntzarra. Mintegi izan da lehia bizian aritu den txirrindularia, etapa bat irabazi eta beste bitan oso gertu ibili baita. Izan ere, biziki garrantzitsua da lasterketa hori txirrindulari gazteentzat, profesionaletara igarotzeko zubi izaten baita, hala berresten du Euskaltelek Mintegi fitxatu izana, berriki.

Estellerriko erriberan, lurbideak nagusi

Hala jakinarazi zuen antolakuntzak. Itzuliaren I. etapan, Lodosan, lurbideak izanen zirela

protagonista. Izan ere, metara heldu aurreko 11 km bide horietan egin zituzten lasterkariak, etaparen amaiera are lehiakorragoa eginez.

Hainbeste, ezen azken unera arte lehia estua izan baitzuten Hugo Aznarrek (Finisher) eta Vicente Rojasek (G-D Supermercado Froiz), harik eta sprint final txundigarri batean Aznar (03:55:38.00) gailendu eta etapa irabazi zuen arte. Rojasek (+00:00:00) bigarren postua eskuratu zuen, ozta ozta, eta Mintegik (+00:00:01) hirugarrena. 160km egin zituzten Lodosan barna.

Artikatik Berriobeitira, aldapan gora behera

Itzuliaren II. etapan Etxauriko ibarra zeharkatu zuten txirrindulariek, Artikan hasi eta Berriobeitin amaituta, osotara 137km egin zituzten. Eguraldia ez zuten aldeko izan, eta ibilbide malkartsuak are gehiago zaildu zuten lasterketa. "Bero handia egin zuen, eta gaizki pasa nuen", azaldu du Mintegik.

Hain zuzen ere, top-etik at gelditu zen altsasuarra, 15. postuan

(+00.01.04), eta Sergio Chumilek (Cortizo) irabazi zuen etapa (3.41.41). "Zaila izan zen, baina orokorrean kontent nago egindakoarekin", berretsi du Laboral Kutxako txirrindulariak. Bena ere, 3.000 metroko desnibela baitzuen ibilbideak; Ultzurrungo portuan hasi eta Ezkabako San Kristobalen amaitu zen etapa, besteak beste.

Iruñean, etapa bete harresi

Harresiak izan ziren II. etaparen bereizgarri. Iruñean. Txirrindulariek 135.8 km egin zituzten Iruñerria zeharkatuz, eta zortzi harresi izan zituzten aurrez aurre. Lasterketa lehiakorra izan zen oso. Azkeneko sprintean 17 txirrindulari aritu ziren, eta ia aldi berean ailegatu ziren metara. Thomas Silva (Caja Rural) izan zen garaile (03:19:19.00), eta Mintegi laugarrena, podiumetik oso gertu (+00.00.00).

IV. etapa, Mintegi garaile

Azkeneko etapa Kaseda eta Muskilda artean egin zen. Lasterkariak 149,6 kilometro egin zituzten Xabier, Esa eta Abaurreagaina-

tik igaroz, besteak beste. Iker Mintegik eskuratu zuen mailota (03:56:48.00), baina larri ibili zen. Muskildara ailegatzear zirela tentsio uneak izan ziren. "Portu batean amaitzen zen etapa eta sprint estua izan genuen. Azkeneko momentura arte ez nekien irabazi edo galduko nuen, baina zorionez irabazi egin nuen", azaldu du Mintegik.

Izan ere, Rural Kutxako Thomas Silva eta Julen Arriola-Bengoa (+00.00.00) ondo-ondotik ibili ziren, helmugan ia batera sartuz. Hugo Aznar (+00.00.00) sendo mantendu eta laugarren postua eskuratu zuen, Nafarroako Itzulia irabaziz.


Sailkapen orokorra

Klasifikazio orokorrean, Burundand ibilitako Hugo Aznarrek (Finisher) irabazi zuen Itzulia (14:53:14.00). Hala, 27 urtetan lehenengo nafarra izan da Nafarroako Itzulia irabazten. Laboral Kutxako Mintegik 9. postua eskuratu du (+00:01:03); azaldu duenez, II. etapan dezente sufri-

Sailkapen orokorra

1. Hugo Aznar 14:53:14
2. Simone Carro +00:00:20
3. David Delgado +00:00:23
4. Ben Houlihan +00:00:24
5. Diego Uriarte +00:00:40
6. David Domínguez +00:00:46
7. Ander Ganzabal +00:00:57
8. Sinuhé Fernández +00:00:58
9. Iker Mintegi +00:01:03
10. Edgar David +00:01:31
17. Jon Gil +00:07:21
39. Ailetz Lasa +00:20:08

tu zuen beroaren kariaz, eta horregatik lortu du marka hori, gainerako etapetan dezente emaitza onak lortu dituen arren. Gilek (+00:07:21) eta Lasak (+00:20:08) 17. eta 39. postuak eskuratu dituzte, hurrenez hurren.



Mintegi helmugara iristen. EUSKALTEL-EUSKADI

Iker Mintegi fitxatu du Euskaltelek

TXIRRINDULARITZA 2024 eta 2025ean arituko da talde profesionallean

Euskaltel-Euskadi taldeak Iker Mintegi fitxatu du eta, hortaz, profesional kategorian arituko da. Hurrengo bi denboraldietan aritzeko sinatu du, 2024 eta 2025erako, Laboral Kutxa Teamekin 3 denboraldi egin ostean. Orain arte alboan izan dituenak eskertu ditu Mintegik, eta eskaintza hori jarraikortasunaren eta talde zein bakarkako lanaren fruitu dela adierazi du.

Halaber, egindako apustuz harro azaldu da Euskaltel-Euskadiko kirol zuzendari Jorge Azanza: "Txirrindulari osoa da, oso ondo igotzen da, abiadura du, ondo moldatzen da multzoetan, eta, batez ere, txirrindulari ausarta eta kementsua da, gogorra, eta ziur urrats gehiago eman go dituela maila profesionallean".

"Ez nuen espero, baina oso kontent nago"

ROBERTO MARTIL XOTAKO KAPITAINA

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotako kapitainak Miguel Hernandezen postua hartuko du eta taldeko bigarren entrenatzailea izanen da

Iñaki Rubio Mendoza IRURTZUN

Poliki-poliki. Hala doa Roberto Martilek iragan martxoan egin zuen lesio hirukoitza. Hain zuzen ere, luze joko du errekupe-ratioak, eta abendura arte ezingo du berriz jokatu. Albeste guztiak, alta, ez dira beltz; Xotako kapitainak kontratua berri du talde horrekin eta, gainera, bigarren entrenatzailea izanen da, Miguel Hernandezen orde, honek Xotaren lema hartu eta gero. Irurtzundarra gogotsu azaldu da.

Datorren denboraldiak berrikuntza asko ekarriko ditu. Besteak beste, Osasuna Magna Xotarekin kontratua luzatu duzu eta bigarren entrenatzailea izanen zara. Ezustean harrapatu zaitu?

Kontratua luzatuko zidatela argi genuen bi aldeek, baina ez nuen inondik inora espero bigarren entrenatzailea izateko egin didaten eskaintza. Ezustean harrapatu nau, eta hainbat bilera egin behar izan ditugu dena ondo lotzeko, ez baita ohikoena jokalaria izatea eta aldi berean entrenatzailea. Hesi hori apurte beharko dugu, orain arte bezala beste jokalariei baten gisan ikus nazaten, eta jokalariei argi utzi zeintzuk izanen diren nire egitekoak. Dena den aukera ona da niretzat eta baita klubarentzat ere; uste dut baliagarria izan naitekeela.

Nola bateratuko dituzu bi jardun horiek?



Roberto Martil, Xotako kapitaina. ARTXIBOA

Nire egitekoa ez da lehenengo entrenatzailearen berdina izanen; Miguel Hernandez izanen da erabaki garrantzitsu guztiak hartuko dituen eta gorputz teknikoaren pisua bere gain hartuko duena. Ni euskarria izanen naiz. Aginduak emanen ditut, bai, baina ez da orain arte egin dudanaren oso ezberdina, azken finean taldearen kapitaina naiz.

Arraroa eginen zaizu?

Ziur baietz. Ez dakit bankilloan egonen naizenez, hala bada arraroa eginen zait bertan entrenatzaile gisa aritzea talde tekniko laguntzen, eta ez jokalaria gisa. Aukera guztiak ari naiz aztertzen orain. Halaber, hamar urte eman ditut emakumezkoen senior taldea entrenatzen, beraz, ez zait hain arrotza eginen.

Kontent zaude?

Bai, ilusio eta erantzukizun handiz hartu dut. Xotak jokalaria ororen gaintetik egon behar du, eta espero dut kategoria salbatzeko gai izanen garela, areto futbola ezin baita soto ilun batean erori. Nik uste dut maila handiko plantilla osatuko dugula, eta urrun ailegatuko garela.

Miguelekin buru-belarri ibiliko zara egun hauetan...

Oso intentsoa ari da izaten. Gauza asko daude egiteko eta lotzeko: jokalarien altak, bajak, denboraldiaren planifikazioa... asko ikasten ari naiz eta asko dut ikasteko. Miguel ere oso pozik dago, gogo askorekin. Esperientzia handia du bere gain, oso ondo ezagutzen du kluba. Plus handia da Xotarentzat. Egun osoa gabiltza hizketan, Whatsapp mezua, deiak...

Imanol Arregirekin ere eginahaletan ariko zara...

Imanol gure parte da. Oraingoz fitzaketa batzuekin laguntzen ari zaigu; jende asko ezagutzen du eta jokalaria onak aurkitzen dizkigu, oso baliagarriak zaizkigunak. Bera izan zen pauso hau ematera animatu ninduen.

Aldaketak egonen dira kirol proiektuan?

Bai. Egitura aldetik aldaketak egonen dira taldean; bajak, altak... Berriki Oihan Sanchezek taldea utzi du, esaterako, eta atezain berri bat fitxatu dugu, Alejandro Palazón murtziarra. Beste urteetan bezainbeste ez sufritzeko ekipo bat osatzea espero dut, afizioa ere identifikaturik senti dadin.



Kintana diskoa jaurtitzen. ASIER COTELO

June Kintana, Europako Txapelketara

DISKO JAURTIKETA June Kintana bakaikuarra Europako taldekako atletismo txapelketan aritzeko sailkatu da. Europako Joko Olimpikoen baitan jokatu da hori, Silesian (Polonia), ekainaren 20tik 25 era.



Txirrindulariak. NOELIA FUNDAZIOA

Irañetatik Camarlesera, sendabidearen bila

TXIRRINDULARITZA Ion Zazpe Irigarai irintarrak jaiotzetiko muskulu distrofia du, VI kolageno faltagatik, eta bizikleta martxa bat antolatatu dute honen sende eta lagunek Noelia Fundazioarekin batera, gaixotasun arraro hori ikusgarri egin eta sendabide bat erdieste aldera.

Ibilbideak 5 etapa izanen ditu eta Irañetatik Camarlesera (Tarragona) joanen dira, Bidaurreta, Sariñena, Reus eta L'Ampollatik igaroz. Ekainaren 29tik uztailaren 2ra 550 km eginen dituzte orotara, 5200 metroko desnibelarekin. Arratsaldeko 17:00an irtegora Irañetatik.



Ion Sola helmugara iristen. GUAIXE

Sola eta Mendivil nagusi Lakuntza-Aralarren

MENDI LASTERKETA Proba luzean Eukeni Goikoetxea eta Arantzazu Perez de Arenaza sakandarrak izan ziren azkarrenak eta motzean Asier Palacios eta Marina Zabala. Euri zaparrada itzela bota bazuen ere, ez zen aparteko intzidentziarik izan

Iñaki Rubio Mendoza LAKUNTZA Jon Sola (HiruHerri, 2:08:09) eta Nuria Mendivil (Tipi Tapa Trail, 2:55:00) izan ziren nagusi Lakuntza-Aralar mendi lasterketaren XVIII. edizioako ibilbide luzean, 26km eginez (1200m desnibel+). Izan ere, pandemiaren kariatz lasterketa luzea bertan behera utzi zuten, eta aurten berreskuratzen egin dute. 67 lasterkari aritu ziren horretan. Lasterketa motzean, ostera, korrikalariak 13 km egin zituzten (640m desnibel+), eta Ekain Salazar (1:01:54) eta Olatz Zabala (Aiaramendi, 1:13:50) gailendu ziren; 122 izan ziren parte hartzaileak. Halaber, martxa ez lehiakorra ere egin zuten.

Irteteko pistola-tiroa goizeko 09:30ean entzun zen, eta hiru ibilbideetako lasterkariak batera aterata ziren, Aralarrentzat. Luzean, Lakuntzatik Irumugarrietaraino (1431m) jo zuten korrikalariak eta motzean, Guardetxeraino (1035) joan ziren besteak, ondoren Etxaaltzetatik

eta Arangundik Lakuntzara jais-teko. Martxa egitea aukeratu zutenek 13km egin zituzten ere bai, baina ibilbide motzaren kontrako noranzkoan.

Eguraldia bikaina izan zen hasieran, nahiz eta eguzki indartsuak sargoria eragin zuen. "Bero gehiegi egin du hasieran eta larri ibili naiz" azaldu du Mendivilek. Halere, lasterketa motzeko korrikalari gehienak

"LAINOAREKIN GALDU EGIN NAIZ. SENTSATIO GAZI-GOZOA DUT" ION SOLA

"ONDO ATERA DA, INORK EZ DU MINIK HARTU ETA GIROA APARTEKOA IZAN DA" IRAITZ BERASTEGI

helmugara iritsi zirenerako oskia belztu eta euri zaparradak bota zituen. "Luzea egin dugunok goian harrapatu gaitu euriak, eta eskertu egin dugu freskotasun apur bat", jarraitu du Mendivilek. Lainoarekin, ordea, arazoak izan zituen Solak: "Markak jarraitzeko zaila izan da lainoarekin, eta bidetik ateratu naiz". Halere, bidea hartu zuen ondoren eta lehena iritsi zen helmugara. "Zapore gazi-gozoarekin amaitu dut".

Sakandarrak, topera Eukeni Goikoetxea (Dantzaleku Sakana, 2:15:27) altsasuarra eta Arantzazu Perez de Arenaza (CM Gasteiz, 3:05:35) izan ziren lehen sakandarrak lasterketa luzean. "Hasieran kostatu egin zait baina gero ondo joan naiz; ibilbidearen paisaiak merezi izan du". esan du Perez de Arenazak.

Laburrean, Asier Palacios (Dantzaleku Sakana, 1:04:36) altsasuarra eta Marina Zabala (Goierri Garaia, 1:17:53) lakuntzarra gailendu ziren. Palacios

azkar ibili zen, baina finago aritu zitekeela aitortu du: "Jaitsieran 4 postu irabazi ditut, baina helmugara iritsi baino lehen indarrak galdu eta aurreratu egin nau korrikalari batek". Arazoak arazo, pasa den urteko marka 7 segundotan hobetu du altsasuarrak. Zabala ere arin-arin ibili da, eta iazko marka berdindu du. Ordea, asfaltoan korritzea ez dela berea aitortu du: "Jaitsieran oso ondo joan naiz, baina asfaltoa zapaldu orduko aurreratu egin naute".

Ingurumenaren alde

Zabalarte elkarte Sustrai Erakuntza fundazioarekin aritu da elkarlanean aurtengo edizioan; ingurumena zaintzearen alde dihardu Fundazioak. Halaber, Antolatzaileek balorazio oso positiboa egin dute: "Ondo aterata da, inork ez du minik hartu eta giroa apartekoa izan da", esan du Iraitz Berastegi Zabalarteko kideak. 80 pertsona ibili ziren antolaketa lanetan.

Sari gozo-gozoa

Lasterketa luzeko irabazle gizon-emakumeek 250 euro jaso zituzten, 100 bigarrenak eta 50 hirugarrenak. Motzean, 100 euro izan ziren irabazleendako. Gainera, Txindoki Gozotegiko tarta bat eskuratu zuten, bertako produktuen lote batekin.

Sakandarren sailkapena

Gizonezkoen absolutua (26 Km)

1. Jon Sola 2:08:09
2. Julio Salazar 2:09:47
3. Imanol Inza 2:15:00
4. **Eukeni Goikoetxea 2:15:27**
5. Hodei Lujanbio 2:16:45

Emakumezkoen absolutua (26 km)

1. Nuria Mendivil 2:55:00
2. Naiara Garaialde 3:05:11
3. **Arantzazu P. de Arenaza 3:05:35**
4. Inés Aguado 3:23:01
5. Elvira Goikoetxea 3:25:34

Gizonezkoen absolutua (13 km)

1. Ekain Salazar 1:01:54
2. Aimar Urquizu 1:02:52
3. Iñaki Isasi 1:03:15
4. Martín Eslava 1:04:25
5. **Asier Palacios 1:04:36**

Emakumezkoen absolutua (13 km)

1. Olatz Zabala 1:13:50
2. Henar Etxeberria 1:17:32
3. **Marina Zabala 1:17:53**
4. **Haizea Ramirez de Alda 1:18:40**
5. Erika Alvarez 1:19:35



Lasterkariak Aralarra bidean. GUAIXE



Arantzazu eta Eukeni, lasterketa luzeko irabazle sakandarrak podiumean. GUAIXE



Graciela, ezkerrean, Amaia Beloki, Oihane Izco eta Cristina Martiarenarekin. UTZITAKOA

Mundiala izanen da

POLE SPORT Pole Sport-eko Mundu-txapelketara joateko sailkatu da Graciela. Urrian egingen da, Polonian, eta Para Pole kategorian arituko da. Backflip eskolako Oihane Izco, Cristina Martiarena eta Amaia Beloki entrenatzailearekin batera joanen da

Iñaki Rubio Mendoza
ETXARRI-ARANATZ

Gogoko tokian ez da aski mal-kartsua den aldaparik. Hala dio esaera zaharrak, eta horri ematen dio zentzua Graciela Prado etxarriarrak. Hainbeste, ezen Pole Sport Mundialera joanen baita urrian, istripu baten kariatz hanka galdu bazuen ere.

Ospitalean zegoela, erreabilitadorea aditu zuen Pole Sport izeneko kirol batez hizketan. Sekula entzun gabeko zerbaitez. "Amaia delako bat ezagutzen zuela esan zuen, entrenatzailea, eta hori praktikatzeko gomendatu zidan", azaldu du. Birritan pentsatu gabe erabaki zuen Iruñeko Backflip Pole Sport eskolara bertaratzea. "Hasieran ez nuen hanka protesikorik, eta sarritan egiten zizkidaten ebakuntzak, beraz, entrenatzera bueltatzen nintzen bakoitzean zerotik hasi behar izaten nuen".

Hasiera gogorra izan zela dio. "Konplexu askonituen; azken finean azalarekin heltzen zara barrara, eta lotsa ematen zidan hainbeste erakustea". Oraindik ere baditu, baina barra heldu orduko, guztiak

uxatzen ditu. Halaber, ordu asko eskatzen dituen diziplina da, eta "oso gogorra fisikoki".

Ordea, bizpahiru urte atzera, "COVID garaian", hasi zen jarraitkortasunez entrenatzen. "Orduan hasi nintzen aurreratzen". Etxarriarra kontziente da egin duen lanaz, baina Amaia Beloki entrenatzaileari egotzi dio merituaren zati handia. Izan ere, Amaia esker aldatu egin da Graciela. Kirolariak ez zuen uste polea egiteko gai zenik, are gutxiago lortu duen maila erdietsiko zuenik.

"NORK ESANEN ZIDAN NIRI, MUNDUKO TXAPELKETARA JOANEN NINTZENIK!"

"AMAIARI ESKER SINETSI DUT GAITASUNA DUDALA. APUSTU HANDIA EGIN DU NIGATIK"

"Apustu handia egin du nigatik; berari esker sinetsi dut gaitasuna dudala", esan du poz-ozik.

Eskolako lagunak prozesu osoan izan duten garrantzia ere azpimarratu nahi izan du Pradok: "Elkarri laguntzen diogu goibel gaudenean, baina pozez zoratzen gara kideren bati pausu edo mugimendu bat ongi ateratzen zaionean". Familia baten tankera hartzen dio eskolari.

Pole Sport-aren gorenean

"Nork esanen zidan niri, Munduko txapelketara joanen nintzenik!". Hala da. Bi urtetan hasi, hazi eta eztanda egin du Graciela; Para Pole kategorian (degaitasunen bat duten pertsonak aritzen dira), Pole Sport txapelketa nagusian egonen da Polonian, eskolako lagun Oihane Izco, Cristina Martiarena eta Amaia Belokirekin batera. Etxarriarrak aitortu du urduri dagoela, baina baita pozik eta gogotsu ere, mundialetan sailkatzea zaila izaten baita. "Irabazi edo galdu gutxi-nekoa izanen da; nola edo hala disfrutatu egingo dut dakidana egiten".



Lasterkariak metan. GUAIXE

Sakanan zehar birritan ibili ziren

TXIRRINDULARITZA 455 lasterkarik korritu zuten Altsasuko 26. BTT Zeharkaldia; Etxarriko Haritzen Ibilbidetik ere igaro ziren

Iñaki Rubio Mendoza
ALTSASU/SAKANA

Urtero legez, 1996tik, Altsasuko BTT Zeharkaldia ospatu zen pasaden ekainaren 11an. 455 lasterkari aritu ziren Sakanako parajeetatik; Altsasuko Foru Plazan hasi zuten eta Sozarretarantz jo zuten lehenik, San Pedrorra joateko segidan. Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku zeharkatu zituzten ondoren.

Aurten, nobedate gisa, Etxarriko Haritzen Ibilbidea zeharkatu zuten, ehunka urteko haritz izugarrien artean galdu zirelarik. Osotara 52 km (1100 m desnibel+) egin zituzten ibilbide luzea hautatu zutenek, eta 43 (600 m des-

nibel+) motza korritu zutenek. Azkenik, Altsasura iritsi ziren, Basoitzitik.

Barranka Txirrindulari Taldeko Julian Claver oso kontent azaldu da, orokorrean bide onetik joan baitzen zeharkaldia. Ordea, bi erorketa izan ziren, eta Iruñera bidali behar izan zituzten plakak egitera, "badaezpada ere".

Halaber, aurreko edizioekin alderatuz jende gutxiagok hartu du parte, baina Claverren ustetan gustora ibili ziren, jendetzarik gabe. "700 pertsona izan ziren iaz, eta lasai ibili ginen; aurten ia erdia, baina eroso ibili gara gara".

EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00
Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus
107.3 FM
beleixe

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 16

ALTSASU Afaria.

Altsasuko EH Bilduren afari informatiboa.

21:30ean, Kukurreka elkarte.

LARUNBATA 17

IHABAR Irteera.

Peru Harri eta Mendukilora irteera, Arakilgo Udalak antolatuta.

09:30 Irteera.

10:00 Denbora librea Leitzan.

11:30 Peru Harrin bisita gidatua Iñaki Perurenarekin.

13:30 Bazkaria, Baraibarren.

16:30 Mendukilo kobazulora bisita.

18:30 Buelta.

LAKUNTZA Herri Eskolaren eguna.

11:00 Ikasle-irakasle eta familien arteko herri kirolak.

11:30 Entziero txikia: zezentxo eraman eta korrika egiteko egunkaria prestatu!

12:00 Tailerrak eta jolasak: ur jolasak, aurpegi margoketa, henna, trentzak...

13:15 Kalejira zarata txarangarekin eta ikasleen erraldoi eta buruhandiekin.

14:30 Bazkaria eta postre dastaketa.

16:00 Puzgarriak, frontoian.

18:00 Dantzaldia eta auzatea, plazan.

20:30 Zezensuzkoa.

ALTSASU Zelandi Eskolaren eguna.

Zelandi eskolako Guraso Elkartearen festa, Baratzekobiden.

11:00-14:00 Puzgarriak

11:00-13:00 Henna tailerra eta jolasak.

12:00 Ekitaldia.

12:30 Flashmob.

14:30 Bazkaria.

17:30-19:30 Xaibor.

IRAÑETA Txapel Azpi elkartearen eguna.

12:00 Kalderete lehiaketa eta alpagata jaurtize txapelketa. Bitartean, haurren animazioa.

15:00 Bazkaria. Ondoren, helduendako animazioa.

ALTSASU Dantza emanaldia.

DantzalArtea Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako gazte eta helduen taldeen ikasturte amaierako ikuskizuna.

17:00etan eta 19:00etan, Iortia kultur gunean.

ZIORDIA Lasterketa.

Ziordi Runnig taldeak antolatutako X. Lasterketa Solidarioa.

17:00 Haurrak.

17:30 Urrezko maila.

18:00 Helduen proba.

IRURTZUN Elkartasun kontzertuak.

Los Zopilotes Txirriaos, A6, Streetwise eta Kili Frexko DJ set taldeen kontzertuak, Larrazpi elkarte eta Irurtzongo Udalak antolatuta.

22:00etan, kiroldegian.

IGANDEA 18

ALTSASU Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleak antolatutako mendi irteera: Banka – Adartza – Luzaide.

06:00etan, suhiltzaileen parean.

IRURTZUN Bide Berdeen eguna.

Plazaola bide berdea abiapuntua eta helmuga

09:15 Saien Balkoira bisita interpretatua.

09:30 Irurtzun - Mugiro - Irurtzun 24 km-ko bizikleta ibilbidea.

10:00 Irurtzun - Latasa - Irurtzun 10 km-ko oinezko ibilbidea.

11:00 Familia ginkana bizikletan.

Plazaola bide berdeko autokarabanan gunearen ondoan.

11:00-14:00 Plazaolako artisauen azoka eta musika giroa: talo, gazta, bitxiak, pateak, baserriko produktuak eta abar; paseoak astoetan; yayakleta, bizikletak konponduz.

13:30 Plazaolako artisauen produktuen zozketa.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiaren ikasturte amaierako kontzertua.

18:00etan, Andra Mari ermitan.

IRURTZUN Kale antzerkia.

Siroko Lorena Arangoaren eta Patxi Larrearen kale ikuskizuna.

19:30ean, igerilekuetan.

ASTELEHENA 19

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

IRURTZUN Kontzertua.

Irurtzongo Musika eskolako Konboko taldearen kontzertua.

19:00etan, Pikuxarren.

ASTEARTEA 20

ALTSASU Batzarra.

Altsasuko festa antolatutako Altsasuko Jai Batzordearen lehenengo batzarra.

18:00etan, Burunda frontoian.

OSTIRALA 23

IRURTZUN Kontzertua.

Irurtzongo Musika eskolako taldeekin dantzaldia.


19:00etan, pilotaleku irekian.



UTZITAKOIA

IRURTZUN Ricardo Azkargorta artistaren Bertatik Bertara margolan erakusketa.

Ekainaren 12tik aurrera. Pikuxarren.



ARTXIBOIA

ALTSASU. Itziar Nazabal arte tailerraren ikasleen lanen erakusketa.

Ekainaren 25era arte. Iortia kultur gunean.

JAIOTZAK

- Enara Baraibar Astiz, ekainaren 11n Lakuntzan
- Gorka Iurrtia Gonzalez, ekainaren 9an Irañetan

EZKONTZAK

- Ainhoa Goikoetxea Pozueta eta Asier Lopez Irigoien, ekainaren 13an Iturmendin

HERIOTZAK

- Miguel Aristorena Navarro, ekainaren 10ean Etxarri Aranatzen
- Maria Jesus Goldaracena Lasa, ekainaren 9an Lizarragan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

ESKELA



Maria Jesus Goldarazena Lasa

Zuk guri helazitaako zintzotasune, alaitasune, eskuzabaltasune, launtasune ta umorie; zuk guri eraindako baliyo hoikin guziekin ta trasmittitu duzkiguzun lurrin goxo eta maitagarriyen bidez, gu arimek astindu ttuzu Maria Jesus.

Ikusi arte biyotzeko laune.

Etxarriko launek

ESKELA



Maria Jesus Goldarazena Lasa

(2023ko ekainaren 9an hil zen)

Gue lagune izatie plazer bat izan da. Ez zaittugu ahaztuko.

Pakitatxo, Kontxi, Miren, Klara, M^a Flor, M^a Jesus, Arantxi, Silvi, Lurdes, Bittori eta Jone
Lizarraga

ESKELA



Miguel Aristorena Navarro

Besarkada haundi bat familiarendako



Gure Pilota KE
Etxarri Aranatz

ESKELA



Juanfran Ansotegi Lizarraga



Zure oroimenak indartzen gaitu

Zure kintoak
Etxarri Aranatz

ESKELA

Juanfran Ansotegi Lizarraga


—Goian bego—

Iruñean hil zen 2023ko ekainaren 10ean 61 urte zituela.

Gure esker ona une hauetan jaso dugun gertutasun eta maitasunagatik.

Etxekoak
Etxarri Aranatz

ESKELA



Miguel Aristorena Navarro

—Goian bego—

Etxarri Aranazen hil zen 2023ko ekainaren 10ean 93 urte zituela.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertzen ditu.

Etxekoak
Etxarri Aranatz



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta *officea* ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZA

Arakigo Udalak udarako aisialdi campuserako begiraleen lan poltsa osatu nahi du: Deialdian interesa duenak arakikul-tura@gmail.com postara curriculumak bidali behar du. Derrigorrezkoak dira Euskara B2 maila izatea, DBH edo baliokideak diren ikasketak eta aisialdi begirale titulua izatea.

Lakuntzako Udalak igeriketa irakaslea kontratatu nahi du: EGA (edo balioki-

dea) eta sorosle titulazioak eskatzen dira. Curriculumak eta titulazioen egiaztagiriak udalarekin aurkeztu hilaren 27a baino lehen.

SALGAI

MUSIKA

Piano elektrikoa salgai: Yamaha Clavinova CLP-115 piano elektrikoa salgai, oso egoera onean dago. 400 euro. Interesa baduzu deitu 628 894 409 telefonora.

LEHIAKETA

Olaztiko Santa Ana festak iragartzeko kartel lehiaketa: Lanak erregistro elektronikoko bidez edo udalarekin aurkez daitezke ekainaren 21eko 14:00ak baino lehen. Sariak egonen dira, oinarriak eta informazio gehiago Olaztiko Udalean edo www.olazti.eus weborrian.

Lakuntzako festetako kartel lehiaketa zabalik: Testua "Lakuntzako jaiak 2023. Abuztuaren 26tik 31ra", adinaren araberako kategoria eta sari ezberdinak

daude. Oinarriak osorik www.lakuntza.eus web orrian ikusgai. Kartelak aurkezteko epea ekainaren 30ean, eguerdiko 14:00etan amaitzen da.

IKASTAROA

Lakuntzan igeriketa ikastaroak: gailaren 3tik 28ra izanen dira. Izena eman nahi duenak www.lakuntza.eus web orrian dagoen eskabide orria bete behar du. Izena emateko epea ekainaren 27an amaitzen da.

OHARRAK

Arbizuko udalak jakinarazten du: Bihar ekainak 17, larunbatean, auzolana egingo dela.

Udako Sakanako Mintzakeria taldeak: Etxarri Aranatz astean behin, bazkalondoren Xapatero tabernan, Altsasun astean behin goizetan eta beste herrietan herriz herri (astero leku batean). Zatoz gurekin dohainik da! Izena emateko whatsapp bidali 600 482 024 telefonora.

OROIGARRIA



Txomin Garcandia Goñi

(Ekainaren 16an hil zen)

II. urteurrena

Ixiltasunien izendu die zu lana ta biziye, txomin, ta izan zanangatik eta yakusi dezunangatik, ez duzugu sekula ahaztuko.

Insaustin etxekuek

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskkelak@guaixe.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Iruñea – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 @Grupolrache
 f Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es



Maria Markotegi eta Nanoipuin literatur lehiaketan irabazleak.

Sormena eta literatura sustatzeko ezinbesteko lehen urratsak

Beste urte batez Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak Maria Markotegi Sakanako ikastetxeetako eta ikasleendako literatur lehiaketaren eta Nanoipuin euskara ikasleendako eta Mintzakideendako lehiaketaren sariak banatu ditu

SAKANA

"Oso pozik gaude aurten parte hartzea handia izan delako. Pantailaz betetako gizarte batean bizi gara, eta pozgarria da jakitea 800 lagun baino gehiagok bere denboraren tarte bat hartu dutela euskaraz sortzeko". David Oroz Sakanako Mankomunitateko presidentek 2023ko Maria Markotegi eta Nanoipuin literatur lehiaketan parte hartu duten ikasleei eta haien irakasleei eta gurasoei "zorionak" emanez hasi zen Euskara zerbitzuak antolatzen dituen Iortian egindako literatur lehiaketan sari banaketa ekitaldia.

Guztira, 800 lan inguru aurkeztu dira; Sakanako ikasleei zuzendutako Maria Markotegi lehiaketan 359 narrazio, 63 poesia, 47 booktube eta 280 komiki aurkeztu dira; guztira, 749 lan. Euskaltegiko ikasleei eta mintzakideei zuzendutako Nanoipuin

lehiaketan 73 lan aurkeztu dira; hamalau lehen mailan, 37 bigarren mailan eta 22 hirugarren mailan. Euskara zerbitzuak 2.510 euro banatu ditu lan onenak saritzeko.

Sormena

Literatur lehiaketekin, Orozek azaldu zuen bezala, Mankomunitatearen helburua euskarazko sormenari bidea egitea da, "sinisten dugulako euskara ezin dela izan ikastetxean zein euskaltegian soilik erabiltzeko hizkuntza". Sormenaren bitartez sentimenduak, bizipenak, esperientziak eta uneak adierazten

GUZTIRA, 800 LAN AURKEZTU DITUZTE AURTENGO SAKANAKO MANK-EKO LITERATUR LEHIAKETETARA

direla gaineratu zuen Mank-eko presidentek: "Sormen lan batek urrutiko paisaia batera eramaten gaitu edo hurbileko baten etxera: tristura edo alaitasuna sentiarazten digu; zer pentsatua ematen digu. Azken batean, hunkitu egiten gaitu, gure barrua mugiarazten du". Aldaketa "garai hauetan" hizkuntzaren bizi-erapenerako euskarazko sormena "inoiz baino beharrezkoagoa" dela esan zuen.

"Eskertzekoa da jasotzen dugun lan kantitatea, baina are garrantzitsuagoa da kalitatea. Askotan epaimahaikideei lan irabazleak aukeratzea kostatzen zaie". Olatz Aldasorok, Joxemari Morcillo Morkots-ek, Izaskun Etxeberriak, Toñi Lopezek, Aitor Karasatorrek, Katrin Gineak, Garbiñe Petriatik eta Monika Etxeberriak osatu dute epaimahaia. Sari banaketa ekitaldia Amaia Amilibiak aurkeztu zuen.

Saridunak

Maria Markotegi literatur lehiaketa

KOMIKI SAILA

LH 3. eta 4. | Saria: 50 euroko txartela

- *Kontuz desioekin*, Izaro Maiza (Uhartte Arakil), Paz de Ziganda ikastola

- *Erregea*, Bruno Apolo (Etxarri Aranatz), San Donato IP

LH 5. eta 6. | Saria: 70 euroko txartela

- *Gaua*, Maia Hanningan (Arbizu), Andra Mari ikastola

- *Laguntzeko gaitasuna*, Arene Olarra (Etxarri Aranatz), San Donato IP

DBH 1. eta 2. | Saria: 90 euroko txartela

- *Kobazuloko misterioa*, Jon Orella (Etxarri Aranatz)

- *Benetako edertasuna*, Beñat Latorre (Arbizu)

Andra Mari ikastola

DBH 3. eta 4. | Saria: 110 euroko txartela

- *Denboraren orbaina*, Eunat Liaño (Arbizu)

- *Bisita magikoa*, Naroa Otxoa-errarte (Olazti)

Altsasu BHI

POESIA SAILA

LH 5. eta 6. | Saria: 70 euroko txartela

- *Irurtzungo festak*, Usua Ongay (Irurtzun), Atakondoa IP

- *Dantza*, Garazi Goñi (Lakuntza), Andra Mari ikastola

DBH 1. eta 2. | Saria: 90 euroko txartela

- *Leihotik begira*, Arhane Jimenez (Ihabar), Andra Mari ikastola

- *Nire bihotzaren gakoa*, Tania Otero (Iturmendi), Altsasu BHI

DBH 3. eta 4. | Saria: 110 euroko txartela

- *Lortuko dugulakoan*, Laida Gartzandiandia (Lakuntza), Altsasu BHI

- *Eta bihar zer?*, Haizea Lopez de Goikoetxea (Altsasu), Iñigo Aritza ikastola

NARRAZIO SAILA

LH 3. eta 4. | Saria: 50 euroko txartela

- *Milan nire laguna*, Nahiane Agirre (Altsasu), Iñigo Aritza ikastola

- *Asier eta inurria*, Erai Lizaso (Ilzarbe), Atakondoa IP

LH 5. eta 6. | Saria: 70 euroko txartela

- *Amets eder bat bizitzen*, Helena Ruiz (Altsasu), Iñigo Aritza ikastola

- *611 unibertsoa*, Nizar El Baz (Etxarri Aranatz), San Donato IP

DBH 1. eta 2. | Saria: 90 euroko txartela

- *Basaluzeko dorrea: lehenaldiko bidaia*, Edorta Amillano (Altsasu)

- *MK Ultra*, Ibai Azpilikueta (Altsasu)

- *Spice Bomb operazioa*, Ekaitz Berdud (Altsasu)

Iñigo Aritza ikastola

DBH 3. eta 4. | Saria: 110 euroko txartela

- *Dena aldatzen da*, Iraide Arrizabalaga (Altsasu), Iñigo Aritza ikastola

- *Arratsalde beldurgarria*, Irati Loiarde (Etxarri Aranatz), Andra Mari ikastola

BOOKTUBE SAILA

DBH 1. eta 2. | Saria: 90 euroko txartela

- *Futboleroak: lokartutako arbitroen misterioa*, Akiur San Roman (Al.)

- *Eireren egunerokoa*, Juna Mendia (Altsasu)

- *Nire minaren etxean*, Intza Anton (Altsasu)

Iñigo Aritza ikastola

DBH 3. eta 4. | Saria: 110 euroko txartela

- *Nire minaren etxean*, Olaia Santano (Altsasu)

- *Ilunpeko zelataria*, Iraide Arrizabalaga (Altsasu)

- *Mendekua hazia*, Araitx Otxoa (Altsasu)

Iñigo Aritza ikastola

Nanoipuin lehiaketa

Sariak: 150 euroko txartela

- 1. maila (A1 eta A2): *Inurria eta landare-zorria*, Idoia Ruiz de Alegria (Arbizu)

- 2. maila (B1): *Ilargi eta bere betaurrekoak*, Daniela Alonso (Irurtzun)

- 3. maila (B2 eta C1): *Oreka*, Elaia Nagore (Irurtzun)



Etxarri Aranazko artisten erakusketa plazan.

Etxarri Aranazko artea eta musika plazan

Ekainaren 11n, igandean, artista etxarriarren erakusketa izan zen Etxarri Aranazko plazan. Besteak beste, Alvaro Mundiñano zenaren margolanak ikusgai zeuden. Musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua izan zen ere

ETXARRI ARANATZ

Alvaro Mundiñano artista zenak margotutako erretratuak ongiatorria ematen zuten Etxarri Aranazko plazan ekainaren 11n, igande eguerdian, egindako artista etxarriarren erakusketara. Herriko musikari txiki eta gazteak artisten topaketara batu ziren; bitartean, musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua eman zuten. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, tarteka zaparradak eta ekaitzak bota zituen, artista etxarriarren lana kalera ateratzeko eguna zen, eta kioskoaren estalpearen barruan margolanak, marrazkiak, jostintza

piezak, zurez egindako piezak eta abar zeuden. Etxarri Aranazko margo taldeko, Emhari jostintza taldeko, Silbia Sesma, estimulazio kognitibo taldeko, Idoia Agirre, Tomas Mauleon, Jave Jaka, Reme Gartzandia eta Sagra Mauleon artisten lanak ziren.

Erretratuak

Plazako kioskoaren azpian ez ezik, Etxarri Aranazko artisten erakusketak, eguraldi txarra zela eta, udaletxeko estalpean jarraitzen zuen. Bertan, 2022ko udazkenean hil zen Alvaro Mundiñano artista etxarriarren lanek presentzia handia zuten.

Paisaiak eta erretratuak, pose desberdinetakoak eta modu desberdinetan landutakoak, ziren. Sakana artistaren gai nagusietako bat zen.

Artista etxarriarren erakusketa musikaz lagunduta egon zen ere: eguerdian Etxarri Aranazko musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua eman zuten. Besteak beste, Rosalia abeslari ospetsuaren Despechá abestiaren euskarazko bertsioa egitera ausartu ziren musikari txiki eta gazteak.

Jende asko bildu zen Etxarri Aranazko artisten lanak ikustera zein musika eskolaren kontzertua entzutera.

BAZTERRETIK

HODEI ALEGRE GIL

Udako kantaren etorrera

Urtero lez udako kanta bat gailentzen da besteetatik, kanta batek besteek baino *pelmada* handiagoa ematen du taberna eta herriko festetan. Urtero kanta bati tokatzen zaio zorte hori izatea, mundu guztiak kantatu eta hilabete gutxitara aspertu eta gorrotatzea.

Euskal Herria nolabaiteko oasi bat izan zen gai horri dagokionez. Rock musika gailentzen zen tabernetan, egoera soziopolitikoak beste alde batera bideratzen zituen gazteen gustuak.

Baina oasisa zena jada ikusgaitz dugu gaur egungo panorama globalizatu honekin; homogeneizatu ditugu munduko musikak. Azken batean, bizitza homogeneizatu dugun moduan.

Reggaetoi kanta latzen kolpeek tabernetako paretak kolpatzen dituztelarik.

Estatuko soinuek Euskal Herrian aginte makila hartu dutelarik. Iazko

udako euskal kanta, kanon horietatik atera zen hein batean, Zetak taldearen kantak eta Malakiasen mixek gainerako kantei guda irabazi baitzieten, txaranga eta elektroek kanta horren doinuak hamaika herritan joz.

Beraz, aurtengo udako kanta ikusteko dago, zein izango ote da parranda guztietan behin eta berriro jarriko dutena? Akaso reggaetoi hotsek ez digute haratago ikusten utziko?

Argi dago, urtero bezala, irratiek reggaetoi doinuak jarriko dituztela, jada bonbo handia izan arren, kantei bonbo handiagoa ematen. Baina, akaso, Euskal Herrian beste bat gailenduko da? Hori pentsatzerakoan talde batzuk bururatzen zaizkit. Iaz bezala Malakias izan daiteke, edo akaso freskotasan handia duten taldeak, hainbat aipa nitzake, baina nork daki asmatu dezakedan.

Abesbatza Txikiaren unea

Pandemiagatik hiru urtez emanaldirik eman gabe egon ondoren, Etxarri Aranazko Abesbatzaren baitan dagoen Abesbatza Txikiaren kontzertua izanen da ekainaren 18an, igandea, 18:00etan, Andra Mari Ermitan. Koru txikiaren ikasturte amaierako kontzertua izanen da, eta, beraz, ikasturte osoan zehar prestatutako kantak interpretatuko dituzte.



Etxarri Aranazko Abesbatza Txikia. UTZITAKOIA



Bertso eskolaren festa

Altsasuko bertso eskolako ikasleek antolatutako ikasturte akaberako bertso saioa izan zen aurreko ostiralean. Urritz eta Ekain Alegre, Idoia Granizo, Ainara Iregi, Endika Legarra eta Eneko Lazkoz bertsolariak parte hartu zuten, eta gai jartzaille Saats Karasatorre izan zen, bertso eskolako irakaslea. Nafarroako Bertsozale Elkarteak eskainitako merendua egon zen.



Joseba Salegi zinemagile altsasuarra, ezkerretik bigarrena, Patxi Bisquert eta Txepe Lara. UTZITAKOIA

Lehenengo sekuentziak

Patxi Bisquerten proiektuak aurrera darrai. Auzolanean ekoizten ari dira Pedro Mari Otaño bertsolariaren inguruko filma. Joseba Salegi altsasuarra da zuzendari laguntzailea. Lehenengo sekuentziak grabatu dituzte, eta udazkenean errodojarekin jarraituko dute

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Lan talde murriztu batekin lanean ari gara eta, egia esan, oso ongi atera zen grabazioa. Pentsatutakoa baino hobea". Etorkizuneko lane-rako "ongi" doazela esan du Patxi Bisquert *Ombuaren itzalean* filmaren proiektuaren sustatzaileak eta zuzendariak, "planifikazioa ongi egina dago". Pedro Mari Otaño bertsolariaren azken hogeitun urteak kontatuko ditu filmak, Euskal Herrian eta Argentinan bizi izan zeneko garaia, hil zen arte. Filmaren lehenengo grabazioak Donostiako Orfeoiarekin egin zituzten, "filmean bi minutu baino ez dena izango", eta lan taldean "harmonia" dagoela ikusi ahal izan zuten. Bisquerten ondoan Joseba Salegi zinemagile altsasuarra egongo da filma zuzentzen. Ekoizlea-Ekoizle taldea, aldiz, Euskal Herriko gizartea izango da, proiektua auzolanean ari direlako finantzatzen.

Salegik "bost urte inguru" dramatzatza proiektuan sartuta, ia hasieratik. "Hasieran plangintzan laguntzeko eskatu zidan Patxi, eta pixkanaka geroz eta gehiago inplikatu naiz". Zuzendari laguntzaile bezala hasi zela kontatu du Bisquertek: "Zuzendaria Joseba Mazias izan behar zen, baina zoritxarrez hil zen. Ondoren Eriz Zapirainen kontaktua eman zidaten, eta hasieratik Salegi zuzendari laguntzaile izango zela ikusi nuen". Baina azkenean Zapirain ez da zuzendaria izango, "eta urratsa erraza zen, ez zen gehiago bilatu behar".

'OMBUAREN ITZALA' FILMAK OTAÑOEN BIZITZA KONTATUKO DU, BERTSOLARIAREN OBRAREN BIDEZ

Orfeoia emanaldiekin hasiko da eta ondoren "harrapatzea" zaila izango delakoan egin zituzten filmaren lehenengo grabazioak taldearekin. Baina egun solte bat grabatzeak "asko" garestitzen duela aitortu dute. "Horregatik erabaki dugu errodoja jarraian egitea". Beraz, grabazioak udazkenearako atzeratu dituzte, "urrats seguruak eman nahi ditugu eta finantziarioa ongi itxita izan nahi dugu". Argentinara joango dira ombua zuhaitza, panpa, Laurak bat espazioa eta frontoia eta abar grabatzera. Benetako gauchoak eta talladoreek parte hartuko dute ere, bertako bertsolariek. Ondoren, errodojeak Nafarroan jarraituko du: Etxalarren, Beran, Lesakan, Utergan, Ziraukin eta Lizarran. Dagoeneko lokalizazioak itxita dituztela azaldu du Salegik, "eta egia esan lokalizazio politikak lortu ditugu".

Otañoen Argentinako etxea, esaterako, Utergan aurkitu duten XIX. mendeko etxe bat izango da. Kastina ere itxita dute; besteak beste, Joseba Usabiaga izango da Otaño.

Koldo Izagirrekin gidoia egiteko eskatzeko bildu zenean Bisquerten hamabi urteko alaba oraindik jaio gabe zegoen. Hamabi urte inguru dramatzatza zinemagileak, beraz, proiektua prestatzen. "Hasieran ideia zen pelikula konbentzional bat egitea, baina antza denez Pedro Mari Otaño jende gutxiri interesatzen zaio, niri eta ni bezalako eroren bati. Ate guztiak ixten zirela ikusita, urteak eta urteak pasa nituen ekoiztetxea bilatzen eta ez nuen bat bera ere aurkitu, EITBko dirulaguntzetara aurkeztu nuen Txepe Lararekin eta ezezkia izan zen ere". Etxera bueltatzen ari zela erabaki zuen auzolanean egingo zuela, "1960ko hamarkadan *Amalur* egin zen bezala; euskal gizarteak dirua emango zuen, auzolanean ekoiztuta".

Ekoizleak

Auzolanaren ideia prestatzen hasi zen: "Horrek suposatzen zuen produkzio kosteak jaitsi behar zirela eta film xumeago bat egin behar zela, talde txikiago batekin". Baina beste alde batetik ateak irekitzen direla azaldu du Bisquertek: "Gutxienez, 300 pantailetan ikusiko da filma". 1980ko hamarkadan euskal zinema 150 zinema aretoetan ikusten zen. Orain, *Handiya* bezalako film bat, Goya sarietan arrakastatsua izan zen, 50 pantailetan eman dutela esan du Bisquertek, "horrek esan nahi du geroz eta gutxiago ikusten dela euskal zinema". Kalitatea badago, dirua inbertitzen da, baina gero ez zaio ikus-entzuleari iristen. "Aretoak desagertu direlako eta plataformek zinemari lekua kendu diote. Orain etxean ikusten da dena". Bisquerten nahia zinema berriz sozializatzea da: "Auzolanarekin zinema iristen ez den herrietara iritsi gaitzke. Arakil, esaterako. Arakilgo Udala auzolanean sartu da, eta, beraz, filma Arakilen ikusiko da". Proiektuan parte

JOSEBA SALEGI ZINEMAGILEA DUELA BOST BAT URTE SARTU ZEN PROIEKTUAN

hartu duten ehun bat udalerrri, ehun bat ikastola, eskola eta institutu, elkarteak eta abarretan ikusiko da filma.

Auzolanean parte hartzeko eta ekoizle bihurtzeko alde batetik udalen, elkarten eta abarren aportazioak daude, eta, bestetik, norbanakoez Ombuaren itzalean filmaren sarrerak eros ditzakete, hamar eurotan, proiektuaren aurkezpena egin den tokietan baita pellomariotañoauzolana.eus webgunean ere. Denek oparia jasoko dutela azaldu du zinemagileak; alde batetik, erakundeek proiektuaren nondik norakoak, filmazioaren inguruko informazioak eta filmaren pendrivea jasoko dute eta sarrerak erosi dituztenek filmaren kartela jasoko dute non ekoizlea pertsona hori izan dela agertuko den. Grabazioarekin jarraitu aurretik hainbat aurkezpen egingo ditu Bisquertek, eta Sakanan Lakuntzan eta Etxarri Aranatzan egiteko falta zaiola esan du. Bestetik, sarrerak ikastetxetan salgai daude.

"Uste dut herri honek film hau zor diola Otañori. Ahaztutarekin ordaintzen ari zaio. Bera bezalako pertsona bat ahaztuta egotea ez da normala". Filmak 1890 eta 1910 urte bitarteko garaia erakutsiko du, euskal kulturaren berpizkunde bat izan zenean: "Foruen erorketaren ondoren aldaketan erreferente izan zen Otaño, 1950 eta 1960ko garaian Oteiza izan zen". Sekuentzia batean, azaldu du Bisquertek, Txirrita eta Otaño agertzen dira, karlista bat eta liberala bestea, eta Otañok Iparragirreri eta Gernikako Arbolarari buruzko bertsoak txalotzen dizkio: "Esaten dio liberala dela eta txalotu duela. Txirritak esaten dio karlista edo liberala ideia horiekin ez doazela inora. Ideia berriak behar dituztela".

Filma *biopic* bat izango da. Otañoen bizitzaren "atalak" kontatuko ditu, bere obraren bidez, Salegik azaldu duenez. Pertsonaia egongo da erdian, eta ez dute dramatismoa bilatuko, baina bertsoek garrantzia hartuko dute, eta "hunkigarria" ere izango da. Obraren bidez, beraz, bertsolariaren garapen pertsonala eta politikoa ikusi ahalgo da: "Transformatu zen. 1989an Kubako gure anaiei deitutako bertsotan Espainiako tropak goraiatzeko, eta ideia berriak hasten direnean txipa aldatzen zaio eta bost urte beranduago *Zazpiak bat* idazten ari zen".

11 GALDERA



Miguel Navarro ezkerretik laugarrena, Lizarragako zortziko dantzariekin. UTZITAKOA

"Zortziko duela 300 urte dantzatzaren zen"

Duela hamazazpi bat urte berreskuratu zuten sanadrianetan dantzatzaren den Lizarragako 'Zortziko Dantza'. Berreskuratze lanetan Miguel Navarro Aristorena aritu zen; oso ongi ezagutzen du Ergoienako kontzejuko dantza

Erkuden Ruiz Barroso LIZARRAGA

1 Noiztik dantzatzaren da zortziko Lizarragan?

Lizarragako zortziko dantza duela 300 urte dantzatzaren zen ja. 1968 eta 1970 tartean galdu zen. Garai hartan jotzera etortzen zirenak hauek ziren: Ihabartik *Ttuntuneroa*, ondoren Etxarriko Karasatorre gaiteroa, Lizarratik Eizaga gaiteroak eta, azkenik, ni oso ume txikia nintzen baina oroitzen naiz, Etxarriko Josetxo *Itsua* akordeoilaria. Horrekin bukatu zen.

2 Noiz berreskuratu zenuten?

Duela hamazazpi urte inguru zortziko berreskuratze talde bat bildu ginen. Doinua berreskuratzen hasi ginen eta aiton-amonengana jo genuen. Doinua gogoratzen zuten eta grabazioak egin genituen. Ondoren, Rafael Karasatorre etxarriarengana jo genuen aita gaiteroa zelako, eta honek bere aitak jotzen zituen partiturak eman zizkigun. Lan erdia egin genuen. Txistularia ere bagenuen, Bautista.

3 Zein izan zen hurrengo urratsa?

Sakanako herri askotan dantzatzaren da zortziko, baina izendapen desberdinak ditu; Etxarri *Dantzakia*, Arbizun *Mari Lonbreren*, Lakuntzan *Alkate dantza*... Lizarragan *Zortziko Dantza*. Karasatorreren partiturak Iruñeko gaitero eta txistulari batzuegana eramanez nituen eta ezer esan gabe dantza asmatzeko eman nien. Esan zidaten *Larrain dantzaren* doinua zela, ingurutxoarena ere bazuela, baita zortzikoarena ere; oso aspaldiko doinua zela. Sakanako zortziko bat zela

esan nien: Lizarragako *Zortziko dantza* eta 300 urteko doinuak zirela. Larrain dantza, ingurutxo, zortziko... Informazio horrekin koreografia bat egin behar genuen, eta horrela atera genuen gaur egun egiten dugun zortziko dantza.

4 Nola dantzatzaren da?

Zazpi zati ditu. Lehenengo danbolinarekin hasten da eta *poronponpon* luze bat egiten da. Garai batean sorotan edo ganadua-rekin lanean zeudenean jendea dantzara deitzeko erabiltzen zen. Bigarren dantza *Alkate dantza* da. Alkateak ematen zion hasiera. Orain urtero Mirentxu Aldazek ematen dio hasiera. Jartzen dion interesa bezalakorik ez dago munduan. Lehenengoan dantza egin ondoren jendea lehenengo lerrora pasatzen joaten zen. Hirugarren dantza barkilloarena da eta bikoteka dantzatzaren da; zapitik helduta. Horren ondoren San Adrian dantza dator. Bukatzeko, zortzikoari dagokionez, *Plazako dantza*. Hau dena bukatuta giza-katea egiten da eta ondoren borobilean jarrita fandangoa eta arin-arin dantzatzaren da. Kalejira batekin bukatzen dugu.

5 Noiz dantzatzaren duzue?

Bakar-bakarrik sanadrianetan. Urtean zehar zaindua mendian egoten da eta herrira festak baino hamabost egun lehenago jaisten da, eta haren omenez dantzatzaren da. Plazan dantzatzaren dugu, ez ermitaren aurrean beste zenbait herritan bezala.

6 Nork dantzatzaren du edo duzue?

Helduak hasi ginen. Hemen ez dago kintorik, orduan helduak hasi ginen eta ume batzuk etor-

tzen hasi ziren. Ume horiek handituta daude eta dantzatzaren jarraitu dute.

7 Aurten zenbatek dantzatzaren duzue?

Hamabost edo hamasei inguruk. Esan behar dut nik aurten txistu joko dudala. Hamazazpi urte dantzatu dut.

8 Jantzi berezirik jantzen duzue?

Emakumezkoak baserritarrez joaten dira, oso dotore, eta gizonnezkoak praka urdinak, alkan-dora edo ator txuria, herriko zapia eta txapela. Denok espartin txuriak.

9 Zer sentitzen duzu zortziko dantzatzaren?

Ohore bat da, eta erantzunkizun bat. Ohitura aurrera ateratzeko ardura bat. Nik uste horri esker mantendu dugula.

10 Nolako izaten da egun hori?

Egun osoa mendian pasa ondoren 18:00ak aldera jaisten gara eta alkatearen etxera joaten da jendea. Han ardoa, gazta eta abar eskaintzen dute. Dantzatu behar dugunok gure etxeetara joaten gara arropa aldatzera. Garbi-garbiak eskolara joaten gara eta 20:00ak aldera bertatik desfitean ateratzen gara, Luzaidoko martxarekin. Plazara iritsi eta zortziko hasten da.

11 Zergatik duzu zortziarekiko zaletasun hori?

Ni gaztetan Iruñeko dantza talde batean egon nintzen, eta orduan pentsatzen nuen beste herri batzuetako dantzak eta gauzak dakizkidanez, herri bertakoa izanik, zergatik ez ote genuen berreskuratzen.

FESTETARAKO DENA PREST?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
DISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

